



# GIZARTE ZERBITZUAK MEMORIA2016



## **AURKIBIDEA**

<b>AURKEZPENA</b> .....	7
<b>DEPARTAMENDUAREN BALIABIDE PERTSONALAK</b> .....	8
<b>KOKAPENA ETA ORDUTEGIA</b> .....	8
<b>BERGARAKO BIZTANLEGOARI BURUZKO DATUAK</b> .....	9
<b>2016. URTEKO SARRERA - GASTUEN BALANTZEA</b> .....	17
<b>GIZARTE ZERBITZUETAN ARTATUTAKO PERTSONAK</b> .....	25
<b>GIZARTE ZERBITZUETATIK TRAMITATUTAKO ESPEDIENTEAK</b> .....	33
<b>3. ADINA</b> .....	39
<b>RAI Balorazioa</b> .....	42
<b>Etxeko laguntza zerbitzua</b> .....	42
<b>Tele-asistentzia zerbitzua</b> .....	50
<b>Eguneko zentroa</b> .....	51
<b>Egoitza</b> .....	53
<b>Behin betirako egoitza</b> .....	53
<b>Aldi baterako egoitza</b> .....	54
<b>3. Adineko elkarteak</b> .....	54
<b>SENDIAN programa</b> .....	55
<b>Gizarte premiak antzeman eta sute arriskuak ekiditeko programa</b> .....	56
<b>Erabilera anitzeko etxebizitza</b> .....	57


<b>MENDEKOTASUN EGOERAK</b> .....	59
MBB mendekotasun balorazioa .....	62
Ezgaitasun edo minusbaliatasuna .....	63
Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa .....	64
Familia inguruneke zaintzeterako zein profesionalak ez diren zainzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa .....	64
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa .....	66
Laguntza teknikoak .....	67
Laguntza teknikoen lagapena .....	69
Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Udal bonifikazioak .....	70
Eguneko zentroak eta egoitzak pertsona ezinduentzako .....	70
Elbarrituentzako aparkaleku txartela .....	71
Elbarrituentzako aparkaleku erreserba .....	72
<b>PRESTAZIO EKONOMIKOAK</b> .....	73
Gizarte Larrialdietarako laguntzak: Eusko Jaurlaritza eta Udalarenak .....	76
Diru sarrerak bermatzeko laguntzak .....	82
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ( RGI ) eta etxebizitza gastuei aurre egiteko laguntza .....	86
Kotizatu Gabekoen pentsioak .....	86
Gizarte Ongizate Fondoko Pentsioak .....	87
LISMI – Elbarrituen gizarteratzeko legea .....	88
Preso eta deportatuentzako diru laguntzak .....	88
<b>ATZERRITARRAK</b> .....	89
Itzulpen eta interprete zerbitzua .....	92
Osintxuko aniztasun eta elkarbizitza proiektua .....	92
<b>BESTE BATZUK</b> .....	93
Dutxa zerbitzua .....	95
Ibiltariak .....	96
Etxebizitza kaleratzeak .....	96
Beste batzuk .....	96





<b>PREBENTZIOA</b> .....	97
Prebentzioa familian .....	100
Prebentzioa eskolan .....	101
Jai eremuko programa .....	102
<b>LONJA LAKET</b> .....	103
Edari alkoholodunak eta tabakoa adin txikikoei saltzearen gaineko kontrola .....	104
Drogomendekotasunen inguruko aholkularitza .....	104
Mendekotasun ezberdinen tratamendurako diru laguntzak .....	104
 <b>BERDINTASUNA</b> .....	105
Genero indarkeriaren aurkako laguntzak .....	108
1.go harrera edota akonpainamendua .....	108
Laguntza psikologikoa .....	109
Aholkularitza juridikoa .....	110
Ostatua ematea .....	110
Genero indarkeriako kasuentzako diru laguntzak .....	110
Bestelako jarduerak .....	111
Berdintasun plana .....	111
 <b>ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA</b> .....	113
Heziketa Okupazionalako ikastaroak .....	116
Enpresa-Negozioak (Ekimenak) .....	117
Orientazio zerbitzua .....	118
Garapen ekonomikorako ekimenak .....	121
Merkataritza indartzeko planak .....	121
Ostalaritzarekin lankidetzak .....	124
OXIRONDO AZOKAren dinamizazioa .....	125
BERELAN foroa .....	127
Gizarteratze ibilbideak .....	130

<b>FAMILIAK</b> .....	135
Adin txikikoak dituztenentzako aholkularitza .....	138
Arrisku edo babesgabetasun egoera arriskutsuan dauden adin txikikoak .....	138
Balorazioak .....	139
Esku hartzeak .....	141
Kale hezitzaileen Zerbitzua .....	142
Esku hartze juridikoak .....	142
Jarraipena .....	143
Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden adin txikikoak. Foru Aldundiaren esku hartzea .....	143
Adin txikikoak babesgabezia egoeran. Foru Aldundiaren tutelapean .....	143
Adin txikikoak kargura dituzten familientzako diru laguntzak .....	145
Protokoloak .....	145
Gainbegiratze saioak .....	146
Foru Aldundiko Gizarte Mintegiak .....	146
<b>GIZARTE LANKIDETZA</b> .....	147
Elkarteei diru laguntzak .....	150
Gobernuz kanpoko elkarteei laguntzak .....	152
Elikagaien bankuko janari banaketa .....	154





## AURKEZPENA

Gizarte Zerbitzuen departamenduaren barnean, prestakuntza ezberdina duten profesionalen osatutako talde teknikoaren bidez, Osasuna, Enplegua eta Gizarte Arazoekin zerikusi duten gaiak lantzen dira.

Bere helbururik nagusia Bergarako herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, eta horretarako dauden baliabideak gestionatu eta sustatzen ditu, arrisku-egoeretara eta marjinaziora bultzatzen duten arazoei aurrea hartzen saiatzen da eta herritarren eguneroko bizitzan parte hartzea sustatzen du.

Hori lortzeko zerbitzu honen bidez zenbait jardura garatzen dira honako esparru hauetan: 3. adina, mendekotasun egoerak, prestazio ekonomikoak, atzeritarrak, prebentzioa, berdintasuna, enplegua-garapen sozioekonomikoa, familiak eta gizarte lankidetzak.

Esku artean duzun txosten honen bidez, lehendabizi herria hobeki ezagutzeko Bergarari buruzko datu interesgarri batzuk azaltzen dira.

Jarraian Bergarako Gizarte Zerbitzuetako departamenduari dagozkion 2016ko datu ekonomikoak aurkituko dituzu. Sarrera gastuen balantzea, gastuaren xehetasunak, e.a.

Ondoren Departamenduaren jardunaren deskribapen orokor bat azaltzen da: departamenduan burututako ekintzak eta departamendura hurbildutako herritarren eta hauek hurbiltzeko erabilitako bideen xehetasunak. Honekin batera, Departamenduan kudeatutako espedientei buruzko informazioa orokorra ezagutzeko aukera izango duzu.

Azkenik, eta Gizarte Zerbitzuetan ezagutza sakonagoa edukitzeko, atalez-atal kudeatzen diren zerbitzu eta programa bakoitzaren deskribapena, urtean burututako jarduna eta beste urte batzuekiko bilakaera azaltzen da.

Espero dugu eskuarteak daukagun txosten hau Bergarako herria eta Gizarte Zerbitzuen jarduna hobeki ezagutzeko baliagarria izango zaizula.



## DEPARTAMENDUAREN BALIABIDE PERTSONALAK

### Udaletxeko baliabideak

Departamendu burua	1(*)
Gizarte langilea	2(*)
Drogomenpekotasun eta berdintasun teknikaria	1
Garapen teknikaria	1
Lan orientazioa eta gizarteratze teknikaria	1
Gizarte teknikaria	1
Administraria	1
Administrari laguntzailea	1

(\*) Departamendu burua eta gizarte langilea postu bat pertsona berdinak betetzen du.

## KOKAPENA ETA ORDUTEGIA

 San Martin Agirre plaza, z/g

 943 77 91 65

 943 77 91 82

 [ongizatea@bergara.eus](mailto:ongizatea@bergara.eus)






## BERGARAKO BIZTANLEGOARI BURUZKO DATUAK

2016/12/31ko dataekin erroldatik ateratakoak

Biztanleak: **14.731**


### Generoa




### Adina

**3.443** pertsona, **%23,37a**, **65** urtetik gorakoak

lazko urtearekin alderatuz, **% 1,77an** igo da



### 3. adina urtez-urte banatuta





URTEAK	EMAKUMEA		GIZONEZKOA		TOTALA	%
		%		%		
65 - 75	919	51,86	853	48,14	1772	51,47
76 - 85	679	58,74	477	41,26	1156	33,58
86 - 95	331	67,97	156	32,03	487	14,14
96 - ...	24	85,71	4	14,29	28	0,81
	1953	56,72	1490	43,28	3443	100,00




### Jatorria


**1.138 pertsona, herritarren % 7,38a, atzerritarra da. 2015.urtearekin alderatuta 21 atzerritar gutxiago daude.**



### Inmigrazioa ingurunearekin alderatuz





### Inmigrazioa herrialdeko banatuta



## Langabezia


Danera, **670** pertsona langabezian daude.  
Langabezia tasa, **%9,56** (\*)ekoa da.

(\*) % 1,45a jaitsi de 2016. urtearekin alderatuz




## Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ( RGI )

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta – RGI tasa ingurunearekin alderatuz



### Mendekotasuna baloratuta duten pertsonak:

### Mendekotasuna baloratuta duten pertsonak ingurunearekin alderatuz






## 2016. URTEKO SARRERA-GASTUEN BALANTZEA

OHARRA: ATAL HONETAN ZEHAZTEN DIREN DIREN DATU EKONOMIKOAK UDAL KONTABILITATEAREN ARABERAKOAK DIRA.

### Gastua

Bergarako Udalaren gastu orokorra: 22.143.471,37 €

Gizarte Zerbitzuetako gastu; 2.301.834,41 €



### Gastu banaketa atal eta anbitoka

ATALAK	Mend	3. adina	Prebent	G.Lankid	Enplegua	Diru-lagu	Familiak	Generoa	Migrazi	Besteak	TOTALA
Pertsonala	28.940,50	141.160,22	27465,73	12.648,51	90.160,45	115.970,61	33.863,51	43.424,02	2.279,76	32.128,12	528.041,43
Erosketa-Zerbitzu arruntak	4.532,00	586.491,74	93.085,19	5.853,31	169.944,04	1.666,10	64.544,65	56.926,73	1.427,80	29.655,05	1.014.126,61
Interesak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Tranferentzia Arruntak	0	320.240,42	0	96.680,51	83.510,78	145.382,29	1.760,50	0	0	0	647.574,5
Inbertsioak	0	102.826,75	0	0	8.799,12	0	0	0	0	0	111.625,87
Kapital Transferen.	0	0	0	0	466,59	0	0	0	0	0	466,59
<b>TOTALA</b>	<b>33.472,5</b>	<b>1.150.719,13</b>	<b>120.550,92</b>	<b>115.182,33</b>	<b>352.880,98</b>	<b>263.019</b>	<b>100.168,66</b>	<b>100.350,75</b>	<b>3.707,56</b>	<b>61.783,17</b>	<b>2.301.835</b>
%	1,45	49,99	5,2	5,00	15,33	11,42	4,35	4,35	0,16	2,68	100

Mend: Mendekotasunak Prebent: Prebentzioa G. Lankid: Gizarte Lankidetzeta Diru-lagu: Diru-laguntzak Migrazi: Migrazioa

### 2014 – 2015 urtetako gastu banaketa arlo edo anbitoka banatuta pertsonal arloa kenduta

URTEA	ATALAK	Mend	3. adina	Prebent	G.Lankid	Enplegua eta tokiko garapena	Diru-lagu	Familiak	Generoa	Migrazi	Beste batzuk	TOTALA
2015	TOTALA	2.423,7	982.661,74	93.384,32	63.206,56	130.761,95	146.932,42	37.437,53	15.206,64	0	4.101,92	1.476.116,78
2016	TOTALA	4.532,00	1.009.558,9 1	93.085,19	102.533,8 2	262.720,53	147.048,39	66.305,15	56.926,73	1.427,80	29.655,05	1.773.793,57
<b>ALDEA</b>		<b>2.108,30</b>	<b>26.897,17</b>	<b>-299,13</b>	<b>39.327,26</b>	<b>131.958,58</b>	<b>115,97</b>	<b>28.867,62</b>	<b>41.720,09</b>	<b>1.427,80</b>	<b>25.553,13</b>	<b>297.676,79</b>
<b>ALDEA %</b>		<b>46,52</b>	<b>2,66</b>	<b>-0,32</b>	<b>38,36</b>	<b>50,23</b>	<b>0,08</b>	<b>43,54</b>	<b>73,29</b>	<b>100</b>	<b>86,17</b>	<b>16,78</b>

Aurreko urtearekin alderatzen badugu, azpimarratzeko datu aipagarrienak dira:

**1.-** Bergarako Udalako gizarte zerbitzuen gastua % 14,76an igo egin da. Udal guztiaren gastuarekiko konparatuz 2015. urtearekiko % 2,39 igo da.

**2.-** Programa eta zerbitzuetan emandako igoera % 16,78a izan da. Igoera arlo guztietan eman da, prebentzio arloan izan ezik.

Kopuru totaletan egondako igoera nabarmenak enplegua eta tokiko garapenena, Generoa eta Gizarte Lankidetzan egon dira.

Enpleguan izandako igoera, 131.958,58 € izan da. Igoera honako arlotan eman da: Alokairu laguntzetan, Enpresaren, Berrekin Berregin, Oxirondo azoka, merkataritzan, Heziketa okupazionalan, ZTB ( Zientzia Teknologia eta Berrikuntza ) jardunaldietan ere.

Aipatzekoa da egitasmo hauek urtez-urte kontsolidatzen ari dira eta ondorioz gastuak igotzen ari da.

Igoera, baina maila txikiagoan, genero arloan, 41.720 € eta gizarte Lankidetzan izan da, 39.327,26 €.


3. adinean ere igoera eman da. Igoeraren arrazoi nagusia erabilera anitzeko etxebizitzarako 2. etxearen erosketarako egindako inbertsioak eragin du.

Igoera erlatibo edo portzentualak kontutan hartzen baditugu, goian aipatutako anbitoaz gain, aipatzekoa da Familien anbitoak izandako igoera. Ikusten da azken urtetako joera mantenduz anbito honetan premiak gorantza doazela.


**3.-** Pertsonal gastuan ez dago desberdintasun nabarmenik iazko urtearekin alderatuta.



Bergarako Udalak Gizarte Zerbitzuetan arlo edo anbito bakoitzean egindako gastu portzentaia ondorengo taulan ikusten da




**Bergarako Udalak 2009 – 2016 . urteetan gizarte zerbitzuen arloan egindako gastuaren bilakaera**




### Sarrerak

Beste erakunde batzuetatik etorritako diru laguntzak:


(*)	E. Jaurlaritza:	67.957,89 €
	Diputazioa:	309.045,50 €
	Herritarrak:	128.633,16 €



**Udalak Gizarte Zerbitzuetan gastatutakoaren % 21,96a beste erakunde batzuetatik eta herritarren ekarpenetatik etorritako sarrerak izan dira. (2016. urtean % 24,36 izan zen).**



**Diru sarreren bilakaera erakundeen arabera**





2015 – 2016. urtean egondako diru-sarreraren konputua orokorrean hartuta igo egin da azken urtetako joerari buelta emanez.

Atalez atal hartzen badugu, diferentziak nabarmentzen dira.

Hala, Jaurlaritzak emandako laguntzak jaitsi egin dira, batez ere prebentzio, LANBIDE eta gizartera arloari dagozkienean. Bestalde, Gizarte Larrialdietarako diru-laguntzak berdintsu mantentzen dira, baina kontabilitate arrazoiak kontutan izanik, 2016. urteari dagokion diru-laguntza erdian 2017. urtean jasoko da. Ondorioz, datu orokorretan, Jaurlaritzaren ekarpen jaitsiera taulan jasotakoa baino txikiagoa izango da errealitatean ( Batanaz beste, 58.000 € ingurukoa ).

Aldundiak emandako laguntzetan igoera eman da. Igoeraren arrazoiak bi dira; alde batetik enplegua garatzeko jasotako laguntzak eta bestalde, Gizarte Zerbitzuen Zorroa eta Gizarte Zerbitzuen Mapa arautzen duen 15/2015 Dekretuan jasotakoa lortzeko jasotako diru-laguntza. Bestalde, etxeko laguntza zerbitzuagatik egiten duen ekarpena azken urtetako joerari jarraitu jaitsi egin da, nahiz eta jaitsiera txikiagoa izan den.

Herritarrek egindako ekarpenak Etxeko Laguntza Zerbitzua eta erabilera anitzeko etxebizitzagatik igo egin dira.





# gizarte zerbitzuetan artatutako pertsonak





**Artatutako jende kopuruari dagokionez, 2016. urtean 9.593**  
 (Bergarako herriaren % 65,12a) pertsona artatu dira Bergarako Gizarte Zerbitzuetan







## artatutako pertsonak

Departamenduan **artatutako pertsona kopurua berdintsu mantentzen da** (43 pertsona gehiago artatu dira ) aurreko urtearekin aldeatuz.

Datuak aztertzen baditugu antzematen da zuzenean departamenduan artatu diren pertsonak, hau da departamenduan herritarren presentzia zuzena, ( programatutako eta programatu gabeko hitzorduak eta leihatilako kontsulta eta tramitazioak,) jaitsi egin dira (batanez beste ia 1.000 pertsona), baina alderantziz, telefono eta email bidez artatutako pertsona kopuruak gora egin du (batanaz beste 1.000 pertsona).

Joera honen esplikazioa azken urteetan departamenduan finkatzen ari garen lan ereduan oinarritzen da.

Lantzen ari garen ereduan espedienteak ahalik eta zehatzen identifikatzen ditugu, espedientearen atal desberdinak identifikatuz, tramitazioa prozedimentatuz eta lan tekniko eta administrariaren arteko bereizketa eginez.

Ondorioz, aurrez teknikariek egiten zuten espedientearen lan administratiboa administrariei bideratzen zaie eta lan tekniko eta profesionala hobeto egiteko denbora lortzen da.


Honen erakusle da teknikariek egindako koordinazio ( bai udaletxe barruan zein beste arlo batzuetako profesional, erakunde, elkarte edo eragileekin ), dokumentazioa ( txostenak, kasuen jarraipenerako transkripzioak, komunikazioak, ... ) eta barne lanarekin erlazonatutako ekintzetan ematen ari den gehitzea. 2014 – 2016 urte tartean %14,28an igo dira. Ekintza hauek herritarrek aurkezten dituzten behar eta eskakizunei hobeto erantzuteko ezinbesteko baliabide dira.

Bestalde, herritarrari erraztasunak eman nahi zaizkio bere premiei erantzuteko eskaerak tramitatzekoan eta ondorioz, Gizarte zerbitzutara etorri gabe telefono zein email bidez burututako kontsultak gora egin dute.

Departamenduaren helburua da lan honetan are eta gehiago sakontzea herritarrari erraztasunak emanez dituzten premiei erantzuterakoan.


## ESPEDIENTEA ZABALDUTAKO PERTSONA BERRIAK

Ondorengo taulan adierazte da azken urtetan espedientea zabaldu zaien pertsona berrien kopurua






**Adinari** dagokionez, Gizarte Zerbitzuetan artatutako pertsonen gehiengoa 19 – 45 urte tartean dago.




**Jatorriari dagokionez, Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileen gehiengoa Euskal Herri eta Estatukoa da, % 72,77ko portzentaian (2015. urtean % 68,34a izan zen)**





artatartako pertsonak

### Sexuari dagokionez



Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen profil nagusia, 19 - 45 urte tarteko Euskal Herriko emakumea da.







**gizarte zerbitzuetatik  
tramitatutako  
espedienteak**


## 1.756 espediente administratibo tramitatu dira 2016. urtean.

Azken urtetako espedienteen bilakaera kontutan edukiz, 2015. urtearekiko alderatuz tramitatutako espedienteetan % 7,19ko jaietsiera eman da.






### Espediente motari begiratzen badiogu, 2011 – 2016. urtetako espediente bakoitzaren bilakaera ondorengoa izan da



Zenbaki orokorrek espediente jaitsiera txiki bat eman dela erakusten dute.

Espedienteak **sexuari** dagokionez,




♀ Emakumeak    ♂ Gizonezkoak



# tramkitatutako espedienteak

**Jatorriari** dagokionez,





# 3. adina


- RAI Balorazioa
- Etxeko laguntza zerbitzua
- Tele-asistentzia zerbitzua
- Eguneko zentroa
- Egoitza
- Behin betirako egoitza
- Aldi baterako egoitza
- 3. Adineko elkarteak
- SENDIAN programako ikastaroak
- Gizarte premiak antzeman eta sute arriskuak ekiditeko programa
- Erabilera anitzeko etxebizitza

**Espediente kopurua: 429 (% 24,43)**

**Generoa : % 65,81a emakumea eta % 34,18a gizonezkoa.**

**Gastua: 1.150.719, 16 €, % 49,99a**


**Espedientek edukitako bilakaera azken urteotan**



3. adina



## Espedienteen banaketa



3. adina



# 3. adina

## RAI Balorazioa

### Zer da

3. adineko pertsonen eguneko zentroa edo egoitza bat eskatzen dutenean, aurrez balorazio bat egiten da egokien zaizkien baliabide eta zaintzak zeintzuk diren ezarriko dituen.

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
169	107	62

## Etxeko laguntza zerbitzua

### Zer da

Ezintasun fisiko-psikiko-sensorial edo sozial baten ondorioz, eguneko bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsona edota familiei euren etxean eskainitako laguntza da. Laguntza hau etxeko oinarritzko lanak, zainketa pertsonalekoak edo heziketakoak burutzeko da eta helburua du pertsona-familiak euren etxeetan oinarritzko premiak estalita bizi izaten jarraitzea.


## Zerbitzuaren deskribapen orokorra

Artatutako kasu kopurua eta pertsona



	2010	2011	2012	2013	2014	2015	<b>2016</b>
KASUAK	110	109	97	85	87	89	<b>86</b>
PERTSONAK	137	160	119	109	114	120	<b>111</b>

### Kasuen profila

\* Mendekotasuna



### Kasuen bilakaera portzentuala (%)




3. adina




## 3. adina

\* Bataz-besteko adina: 78,91 urte

Adinaren bilakera




\* Generoa:



♀ Emakumeak  
♂ Gizonezkoak

### Generoaren bilakaera protzentuala (%)



♀ Emakumeak  
♂ Gizonezkoak




3. adina




# 3. adina

Orduak:


**Urteko ordu kopurua: 20.027,25**



Orduen bilakaera portzentuala mendekotasunaren arabera



Azken urtetako orduen bilakaera ondorengo grafikoan ikusten da.




3. adina



3. adina


Urteko kostua: 452.378,88 €

Sarrerak: 285.997,06 €





### Ekarpenaren bilakaera portzentuala (%)



Azke 8 urteetan ekarpenak irauli egin dira, zerbitzu jasotzaileak eta Udalak bere gain hartuz kostuaren zatirik handiena.

**Kasu berriak: 16**

**Bajak: 18**





## 3. adina

### Tele-asistentzia zerbitzua

#### Zer da

Bakarrik bizi edo denbora luzean bakarrik egon behar duten pertsonen larrialdi egoera bat gertatuz gero laguntza edo arreta eskatzeko zerbitzua da.

**125** eskaera eduki ditugu. 85 emakume eta 40 gizonezko.

2016. urte amaieran, **348** telelaguntza (276 emakume eta 72 gizonezko) martxan ditugu Bergaran.

2016. urtean BETI-ON tele-asistentzia zerbitzuaren bitartez Bergaratik jasotako deiak

DEI MOTAK	KOPURUA
Gizarte mailako arazoak (erorketak eta beste batzuk )	26
Koordinazio bisitak ( alta berriak edo errebisioak )	56
Esku-hartze teknikoak ( konponketaka eta mantenua )	104
Gizarte mailako larrialdiak (Suhilatzaile eta Ertzantzaren esku-hartzea behar du)	1
Tele-asistentziaren erabilerari buruzko zalantzak	12
Tele-asistentzia zanpatu baina herritarrak ez du erantzuten	83
Hitz egitea / Lagun egitea / bakardadea	1
Osasun zerbitzuetarako hitzordua hartzea	12
Osasun arloarekin erlazionatutako deiak ( osasun larrialdiak barne )	151
<b>DANERA</b>	<b>446</b>

## Eguneko zentroak

### Zer da

Eguneko zentroak gizarteak eskaintzen duen baliabide bat da, programa jakin batzuekin eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste batzuen laguntza behar duten 60 urte baino gehiagoko pertsoneri. Laguntza 8 ordukoa da, horretarako bereziki prestatutako leku eta instalazioetan, langile eta programa jakin batzuk bitarteko direla. Eguneko Zentroko zerbitzuan sartzen da etxetik zentrorra eta zentrotik etxerako garraioa.

**20 eguneko plaza** eskaera egon dira (12 emakume eta 8 gizonezko).  
2015. urtean 22 eskaera egon ziren.

2016. urtean zehar Bergara eta Antzuolako eguneko zentroak erabili dira egondako eskaerei aurre egiteko. Bi zentro hauek eskaintzen duten plaza kopurua kontutan edukiz, plaza eskaerak egon ahala erantzuna eman da- Ez da itxaron zerrendarik egon.


2016. urtean **63** Bergarar joan dira eguneko zentro batera. 2015. urtean **43** joan ziren.





# 3. adina

## Eboluzioa



2016 urtean Bergararrak eguneko zentroetan			
Eguneko zentroa	Gizon	Emakume	Guztira
Antzuola Torresoroa eguneko zentroa	1	12	<b>16</b>
Bergara. Eguneko zentroa	9	37	<b>46</b>
Elgetako eguneko zentroa	0	1	<b>1</b>
<b>Guztira</b>	<b>13</b>	<b>50</b>	<b>63</b>

## Egoitza


### Behin betirako egoitza

#### Zer da

Zerbitzu honen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko pertsoneri, hainbat arrazoi direla eta, etxean bizi ezin direnean.

**40 egoitza plaza** eskaera egon dira. 2015. urtean 24 egon ziren.

Ondorengo grafikan azken urteetako bilakaera azaltzen da. Bertan ikusten denez, azken 4 urtetan jaitsi egin da eskaera kopurua.



3. adina



# 3. adina

## 2016. urtean egoitza publiko/hitzartu batean sartu diren Bergararrak

DANERA	MIZPIRUALDEN	BERGARATIK KANPOA
32	22	10

Egoitzan sartutako **3** kasu, plaza soziosanitarioak izan dira.

2016. urtean **320.240,42 €**-ko ekarpena egin du Bergarako Udalak Mizpirualde egoitzara.

## Aldi baterako egoitza Zer da

Zerbitzu honen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko ezinduei, hainbat arrazoi direla eta, denboraldi jakin batez etxean bizi ezin direnean eta beti ere gero etxera itzultzeko helburuarekin.

URTEA	DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
2015	21	12	9
<b>2016</b>	<b>37</b>	<b>28</b>	<b>9</b>

## 3. adineko elkarateak Zer da

Atal honetan, Bergarako Udalak 3. adineko pertsonentzako aisialdia, elkartegintza eta beste ekintza batzuetan gastatutako dirua aipatzen da.

### Danera gastatutako dirua **72.415,08 €**

Kontzeptuta:

- Boni Laskurain ibilbidean dagoen gizarte etxearen mantenua **65.000,00 €**
- San Joxepe elkarteari diru laguntza **4.395,52 €**
- 87 urtetik gorako Bergararrei omenaldia **3.019,56 €**

## SENDIAN programa

### Zer da

Adineko pertsona ezinduekin bizi diren familiei laguntzeko helburua duen programa da. Programa honen bitartez hainbat laguntza eskaintzen dira, horien artean, adineko pertsona ezindu baten zaintzailearentzako formakuntza ikastaroak, laguntza psikologikoa eta asteburuak eta jai egunak egoitza eta eguneko zentroetan igarotzeko plazak.

### Autolaguntza taldean parte-hartzea

Hilean behin eta psikologo baten gidaritzarekin mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileak elkartzen dira zainketek eragindako bizipen, esperientziak, arazo, gatazkak, ... elkar-trukatu eta denen artean irtenbideak bilatu asmoz.

2016. urtean **3** pertsonak egin dute programa honetan parte-hartzeko eskaera.

Orotara taldean **9** lagun ibili dira, **7** emakume eta **2** gizonezko.

### Asteburu eta jai egunak eguneko zentro eta/edo egoitzan igarotzea

Mendekotasuna duen pertsona bat zaintzen ari diren zaintzaileek aukera dute asteburu edo jai egunetan atseden hartzea pertsona mendekoa eguneko zentro edo egoitza batera eramanda.

2016 urtean **4** eskaera egon dira (2 emakume eta gizonezko 2).





## 3. adina

### **GIZARTE PREMIAK ANTZEMAN ETA SUTE ARRISKUAK EKIDITEKO programa**

#### **Zer da**

Adin konkretu batetik gora bakarrik edo beste pertsona nagusi batekin bizi diren herritarrekin burututako prebentzioa programa bat da. 80 urte beteak eta 65 urtetik gorako bizilaguna batekin bizi diren etxetara iritsi gara.

Programa honen bidez bi helburu lortu nahi dira:

- Herritar hauen gizarte premiak ezagutu, gizarte zerbitzu eta baliabideei buruzko informazioa eman eta laguntzarik behar izanez gero, laguntza eskaini.
- Herritar hauen etxeetan egon daitezkeen sute arriskuak aurreikusi eta ezagutu eta hauek ekiditeko alarma sistema bat jarri.

2016/12/31ean danera **466 etxebizi ikuskatuta** daude eta **555 su-detektagailu** jarrita daude.

Programaren kostua **13.431,00 €**-tako izan da.



## ERABILERA ANITZEKO ETXEBIZITZA

### Zer da

Pertsona nagusientzako bizilekua da, ohiko etxebizitza eta 3. adineko egoitzaren arteko baliabide bat.

Etxebizitza pertsona nagusi eta fisiko-zein psikiko mailan autonomoei (eguneroko ekintzetarako – jaiki, jantzi, garbitu, kalera irten, elkarbizitza egokia mantendua... – besteen beharrik ez dutenak) zuzenduta dago.

Eskaintzen diren zerbitzu orokorrak dira: alojamendua, otorduak eta arropen kudeaketa.

Etxebizitza 6 pertsonentzako da.


2016. urtean **5** erabiltzaile izan dira, denak gizonezkoak

**Urteko kostua; 45.106,63 € (gastu arrunta) + 69.867,98 € (inbertsioak):  
114.974,61 €**

Inbertsioetan aipatu behar da, zerbitzua eskaintzeko Bergarako Udalak 2. etxebizitza erosi duela. Etxebizitza erosteko Udalak egindako inbertsioa **69.488,98 €**-takoa izan da. Erosketa arte, etxebizitza hau alokairuan egon da.



### Sarrerak:



3. adina



# Mendekotasun egoerak

- MBB mendekotasun balorazioa
- Ezgaitasun edo minusbaliatasuna
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa
- Familia inguruneko zaintzearako zein profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa
- Laguntza teknikoak
- Laguntza teknikoen lagapena
- Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Udal bonifikazioak
- Eguneko zentroak eta egoitzak pertsona ezinduentzako
- Elbarrituentzako aparkaleku txartela
- Elbarrituentzako aparkaleku erreserba


menpekotasun egoerak

**Espediente kopurua: 842 (% 47,94a)**


**Generoa: % 57,58 emakumea eta % 42,41 gizonezkoa.**

**Gastua: 33.472,5 €, % 1,45**

**Espedientek edukitako bilakaera azken urteotan**



## Espedienteen banaketa



menpekotasun egoerak


## MBB mendekotasun balorazioa

### Zer da

Mendekotasun egoera bat duen pertsona batekin edozein esku-hartze egin aurretik balorazio bat egiten da. Mendekotasun balorazio honek zehaztuko digu pertsona honek zein laguntzetarako eskubidea duen.

**241** Mendekotasun balorazio eskaera egon dira. (2015. urtean 263)

2016ko abenduaren 31ean Bergaran **609 pertsona mendekotasun egoeran** zeuden.



**609 pertsonak daukate mendekotasun maila bat onartua. Herriaren % 4,13ak.**

SEXU	GRADUA 1	GRADUA 2	GRADUA 3	TOTALA	%
EMAKUMEA	142	123	121	386	63,38
GIZONA	83	73	67	223	36,61
DANERA	225	196	188	609	100

## Ezgaitasun edo minusbaliatasuna

### Zer da

Edozein esku-hartze egin aurretik, gaixotasun, lesio edo ezgaitasun bat duen edonork ezintasunaren balorazioa eska dezake, eskubideak zehazteaz gain, egokien zaizkien baliabide eta zaintzak ezarriko dituen.

Bestalde, ezintasun maila baloratuta edukitzea abantaila izango da lanean hasteko, mugikortasunean laguntzak jasotzeko eta autonomia pertsonala edukitzeko, baita abantaila sozial eta ekonomikoak jasotzeko ere.

**216 ezintasun balorazio** eskaera egon dira. (2015. urtean 224)

DANERA	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
216	113	103

**2016. urte amaieran 1.411 pertsonak ezintasun maila bat onartuta zeukaten.**  
(% 33a edo gehiago)

GRADUA	KOPURUA	%
33 - 64	764	48,47
65-74	237	15,03
75-100	330	20,93

**1.411 pertsonak daukate ezgaitasun kalifikazioa. Herriaren % 9,57ak.**





## Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa

### Zer da

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez, Foru Aldundiari eguneko zentroetako eta egoitza arreta iraunkorreko zerbitzuko plaza bat eskatu eta 3 hilabeteko epean erantzunik jaso ez duten kasuei eguneko zentroko edo egoitzako plaza pribatu bat ordaintzen laguntzeko diru laguntza bat da.

2016. urtean **6 laguntza** eskaera tramitatu dira. (2015. urtean 5)

2016. urtean **6** pertsonak jaso dute **laguntza**.

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA	KOPURUA
6	3	3	15.474,08 €

## Familia inguruneko zaintzetarako eta profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa

### Zer da

Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren bitartez familia inguruneko zaintzaile ez profesionalak mendeko pertsonari ematen dion arretaren gastuak ordaintzen lagundu nahi da.

**49 laguntza** berri tramitatu dira. (2015. urtean 95)



2016. urtean 291 pertsonak jaso dute laguntza.

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA	KOPURUA
291	167	124	783.226,19 €

Zaintzaileen profila

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA
295	189	106
%	64,06	35,93



menpekotasun egoerak

## Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

### Zer da

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren bitartez mendekotasun handiko pertsonen autonomia sustatzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak ekarritako gastuak ordaintzen lagundu nahi da.

**49 laguntza** berri tramitatu dira. (2015. urtean 46)

### 2016. urtean 117 pertsonak jaso dute laguntza.

(2015. urtean 73 pertsonak jaso zuten laguntza).

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA	KOPURUA
117	77	40	437.278,02 €

### Zaintzaileen profila

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA	ENPRESA
118	109	9	0
%	90,41	8,21	1,36

2015. urtearekin konparatuta, diru-laguntzak igo egin dira, baina batez ere, igoera Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoan nabaritzen da.

**Zaintzaileen profilari begiratuta, bai familia barruko ZAINZAILEA zein kontratatutakoa, gehiengoa EMAKUMEA da.**

**1.235.978,29€** banatu ditu Foru Aldundiak Mendekotasun maila bat duten pertsonen zaintza bermatzeko.

## Laguntza teknikoak

### Zer da

Laguntza honekin ezgaitasunen bat izan edo beste batzuen menpe bizi diren pertsonen lagundu nahi zaie eguneroko jardueretan autonomo izan daitezen eta behar duten lekuetara iritsi daitezen. Ezgaitasuna edo urritasuna prebenitu, konpentsatu, arindu edo kentzen saiatuko da honako laguntza hauen bitartez: Mugikortasunerako laguntzak: aulki bereziak, altzari egokituak, etab. Irigarritasuna hobetzeko laguntzak: eskailerak gainditzeko laguntzak, etxe barruko egokitzapenak, etab. Komunikaziorako laguntzak: entzuteko protesiak, beste pertsonekin komunikatzeko gailuak, e.a.

**116** pertsonak eskatu dituzte laguntza teknikoak.

DANERA	EMAKUMEA	GIZONEZKOAK
116	59	57


**116** pertsona hauen artean, **255** laguntza eskatu dira eta **onartuak 196** laguntza desberdin izan dira.

DANERA	BERRESKURAGARRIAK	EZ BERRESKUGARRIAK	STOCK	KOPURUA €-tan
196	4	33	159	28.334,00€





### Azken urteetako bilakaera



## Laguntza teknikoen lagapena

### Zer da

Udalaetxeak bere esku dituen hainbat laguntza tekniko ( hala nola muletak, ohe artikulatuak, garabiak, gurpildun aulkiak, scala-mobila, bainurako aulki bereziak, taca-taca-k eta koltxoi bereziak herritarrei lagatzeko aukera ematen du Foru Aldundiari eskatutako laguntzak iritsi bitartean.

2016. urtean **61** pertsonak egin dituzte eskaerak, danera **138** laguntza tekniko laga direlarik. (2015. urtean, 19 pertsonak 38 laguntza eskaera egin zituzten).

### Utzitakako Udal laguntza teknikoak izan dira:

LAGUNTZA	KOPURUA
Ohea	27
Ohearentzako barandilak	21
Bainurako aulki biribilkariak	7
Dutxarako gurpildun aulkiak	31
Taka-takak	6
Garabiak	15
Scala-mobila	8
Plataforma	0
Airezko koltxoiak	12
Triangelu/Potentziadoreak	11
<b>DANERA</b>	<b>138</b>

Lagapen zerbitzua, hau da, laguntza tekniko hauek etxeetara eraman , erabilpenari buruzko zehetasunak eman eta premiarik ez dagoenean berriro gordailua eramateko zerbitzugatik, **4.532,00 €** gastatu dira.



## Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko Udal bonifikazioak

### Zer da

Irisgarritasuna eta bizigarritasuna oztopatzen duten arkitekturako trabak kentzeko lanengatik ordaindu beharreko udal zergan aplikatzen den %90eko hobaria.

### 2016. urtean emandako hobariak

DANERA	DANERA	KOPURUAK
IGOGAILUA JARTZEA	13	73.841,69 €
ETXE BARRUKO OZTOPOAK	1	158,51 €
DANERA	14	74.000,2 €

## Eguneko zentroak eta egoitzak pertsona ezinduentzako

### Zer da

Eguneko zentroak, gizarteak eskaintzen duen baliabide bat da, programa jakin batzuekin, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beste batzuen laguntza behar duten 60 urtetik beherako pertsona ezinduentzako.

Egoitzen bitartez egoitza batean bizitzeko aukera ematen zaie etxean bizi ohi diren adineko pertsonari, hainbat arrazoi direla eta, etxean bizi ezin direnean.

### 2016. urtean egindako eskariak

DANERA	EMAKUMEA	GIZONA
6	4	2


## Elbarrituentzako aparkaleku txartela

### Zer da

Eguneroko bititza erraztu, irisgarritasuna eta autonomia bultzatu asmoz, ezintasuna eta mugikortasun arazoak aitortuta dituzten pertsonen, ezinduentzako gordeta dauden auto aparkalekuak erabiltzeko aukera ematen dien txartela da.

2016. urtean **91** aparkaleku txartel eman dira.

### Aparkaleku txartelen bilakaera azken urteotan honakoa izan da:



**66 aparkaleku daude elbarrituentzat Bergaran**





## Elbarrituentzako aparkaleku erreserba

### Zer da

Eguneroko bizitza erraztu, irisgarritasuna eta autonomia bultzatu asmoz, ezintasuna eta mugikortasun arazoak aitortuta dituzten auto gidarientzako erabilpen eskusiboko aparkalekuak dira. Aparkaleku hauek, norberaren etxebizitza edo lantokitik ahalik eta gertuen jartzen dira.


**7** aparkaleku erreserba **eskaera** egon dira.

**14 aparkaleku erreserba daude Bergaran**



# Prestazio ekonomikoak

- **Gizarte Larrialdietarako laguntzak: Eusko Jaurlaritza eta Udalarenak**
- **Diru sarrerak bermatzeko laguntzak**
- **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) eta etxebizitza gastuei aurre egiteko laguntza**
- **Kotizatu Gabekoen pentsioak**
- **Gizarte Ongizate Fondoko Pentsioak**
- **LISMI – Elbarrituen gizarteratzeko legea**
- **Preso eta deportatuentzako diru laguntzak**






**Espediente kopurua: 183 ( % 10,95a)**


**Generoa: % 48,08a emakumezkoa eta % 51,91a gizonezkoa**

**Gastua: 263.019,00 €, % 11,42a**

**Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan**



### Espedienteen banaketa





## **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak**

### **Zer da**

Prestazio ekonomiko hau premia puntualei, batez ere etxebizitzako gastuei ( alokairua, hipoteka, argia, ura, gasa,.. ) aurre egiteko ematen den laguntza bat da. Ez da aldiro aldirokoa. Laguntza jasotzaileak edo honen familiako edozein kidek eskura dezakeen edozein baliabide edo prestazioren ordezkua eta osagarria ere izan daiteke.

2013an Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak sortu zituen Bergarako Udalak. Funtsean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen araudian oinarritzen da eta aldaketa edo ezberdintasun nagusia erroldan datza. Udal Gizarte Larrialdietarako Laguntzak – Udal GLL-ak, jasotzeko, Bergaran bizi eta laguntzak eskatu aurreko azken bi urtetan gure herrian erroldatuta egotea eskatzen da.

**2016. urtean jasotako eskaerak: 131**

**2016. urtean onartutako laguntzak: 103**  
 71 GLL eta 25 UDAL GLL

**145 onuradun**

Ez onartutako kasuen arrazoiak hauek izan dira: Aurrekontua agortzea, laguntzak jasotzeko baldintzak ez betetzea, espedienteak osatzeko agiriak ez aurkezteak eta kontzeptu horretarako beste laguntza batzuk jasotzeak.

GLL-ak ukatzeko arrazoiak izan dira:

<b>Kontzeptu berdinerako beste laguntza batzuk jasotzea</b>	<b>10</b>
<b>Bizikidetzak unitateak baldintzak ez betetzea</b>	<b>1</b>
<b>Etxe berean 2 bizikidetzak unitate daudenean, IPREM-a baino gehiagoko sarrerak izatea bakoitzak</b>	<b>13</b>
<b>Aurrekontua agortu</b>	<b>25 (*)</b>
<b>Bestelakoak</b>	<b>2</b>

(\*) GLUL-k tramitatu zaizkie

GLUL-k ukatzeko arrazoiak


<b>2 urteko errolda Bergaran ez betetzea</b>	<b>9</b>
--	----------

Aurrez azaldu den moduan, 2013an Gizarte Larrialdietarako Udal Laguntzak sortu ziren eta funtsean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan oinarritzen diren arren, ezberdintasun nagusia erroldaren baldintzan datza, kasu honetarako 2 urteko errolda behar baita Bergaran. Baldintza honen helburu nagusia, Bergaran gizarteratze eta errotze prozesu bat burutu duten pertsonen laguntzea da.







Ondorengo grafikoan azken urteetan jasotako laguntzen bilakaera azaltzen da.




\* Sexua



\* Jatorria




\* 3. Adinekoak





\* Guraso bakarreko familiak




Onartutako laguntzen ezaugarriak

	KOPURUA	ALOKAIRUA/ HIPOTEKA	MANTENUA (*)	BESTEAK	DANERA
GLL	71	57.177,00 €	50.373,12 €	0,00 €	107.550,00 €
UDAL GLL	25	9.803,03 €	15.447,50 €	6.153,67 €	31.404,00 €
<b>TOTALA</b>	<b>96</b>	<b>66.980,03 €</b>	<b>65.820,62 €</b>	<b>6.153,67 €</b>	<b>138.954,20 €</b>


(\*)Mantenu ( Argia, ura, gasa, telefonoa,...)

Gastua






### Azken urteetan laguntzetan egindako gastuaren bilakaera



### Sarrerak





## Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza


### Zer da


Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ahal izateko baldintzak aldatu egin ziren 2012ko urtarrilean. Baldintza berrien arabera, laguntza eskuratu ahal izateko 3 urteko errolda EAEn edo urte beteko errolda izanik 5 urteko bizitza laborala eskatzen dute. Ondorioz, pertsona kopuru bat babes sistema honetatik kanpo geratu ziren eta estaldurarik gabeko egoera behartsuan jarraitzen dute. Egoera berri honen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun bat eman nahian, diru-laguntza berri bat onartu zuen 2012ko uztailean; Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza.

Laguntza hau, diru laguntza bat da eta Gipuzkoan iraunkorki bizi eta elkarbizitza unitatearen oinarrizko beharrak asetzeko, diru-sarrerarik ez dutenei edo behar beste ez dutenei emango zaie, hau da, oinarrizko beharrak asetzeak dakartzan gastuei aurre egitea du helburu.

2016. urteko **31 eskaera** (8 emakume eta 25 gizonezko) jaso dira Bergarako Gizarte zerbitzuetan. Urtean zehar **77** pertsona izan dira DBL **onuradunak**.

2016-12-31n, **20** pertsonak jarraitzen zuten **onuradunak** izaten.






(\*)Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza 2012ko uztailan sartu zen indarrean.

**332.340,18 €** banatu dira Bergararren artean

### Generoa




### Jatorria

Laguntza jasotzaileen **%100a estatutik kanpoko** jatorriko pertsonak dira.

### Adina

Kasu guztiak 23-65 urte bitartekoak dira.





## Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ( RGI ) eta etxebizitza gastuei aurre egiteko laguntza:

### Zer da

Aldiro-aldiro ematen diren prestazio ekonomikoak dira eta herritarren jateko oinarrizko premiak eta etxebizitzako gastuak asetzeko dira. Elkarbizitzako unitate bateko edozein kidek eskuratu dezakeen edozein baliabide eta prestazio ekonomikoren osagarria da. Diru-laguntza hau LANBIDEk kudeatzen du.

	DBE Onuradunak	€	E.G.L.O Onuradunak	€	DANERA
<b>2016</b>	<b>315</b>	<b>2.035.218 €</b>	<b>158</b>	<b>373.182 €</b>	<b>2.408.400 €</b>
2015	305	1.918.776 €	140	323.476 €	2.242.542 €

## Kotizatu Gabekoen pentsioak

### Zer da

Izenak azaltzen duen bezala, gizarte segurantzako sistema arruntean pentsioa jasotzeko kotizatu ez duten pertsonen pentsio bat jasotzeko aukera da. Bi motatakoak dira: jubilazio eta ezintasunekoak.

### 2016. urtean 6 pentsio berri onartu dira eta denera 43 onuradun egon dira.

URTEA	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
KOPURUA	28	34	25	28	33	32	37	36	39	39	43

### 2016. urtean jasotako pentsioak

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
43	203.681,16 €

(\*) Foru Aldundiak banatuta

## Profilak

### \* Pentsio modalitatea

EZINGAITASUNAGATIK	ZAHARTZAROAGATIK
29	14
% 67,45	% 32,55

## Gizarte Ongizate Fondoko Pentsioak

### Zer da

Foru Aldundiak gestionatzen duen prestazio ekonomikoa da eta oinarritzko premiei aurre egiteko da. Prestazio hau eskuratzeko eskatzaileak ezin du diru-sarrerarik eduki eta ez du aurretiko kotizazio beharrik. Behin prestazioa eskuratuta, onuraduna izaten jarraitzeko ezinbestekoa izango da baldintza horiek une oro betetzea.

Bi mota daude: Zahartzaro eta Gaixotasun-pentsioa.

### 2016. urtean jasotako pentsio kopurua

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
5	10.115,55 €

(\*) Foru Aldundiak banatuta

Kopuru handiagoko pentsio eta prestazioengatik ordezkutzen ari da eta 2016. urtean modalitate honetako 3 pentsio tramitatu dira.





## LISMI – Elbarrituen gizarteratzeko legea

### Zer da

Foru Aldundiak gestionatzen duen laguntza da, eta Minusbaliatuen garraio-gastuak diruz konpentsatzeko balio du. Prestazio hau eskuratzeko, eskatzaileak ez du diru-sarrerarik izango eta ez du aurretik kotizatu beharrik izango.

**2016. urtean 2 eskaera berri izapidetu diren arren ez dira onartuak izan eta onuradun bakarra dago unean.**

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA(*)
2	2.794,34 €

(\*) Foru Aldundiak banatuta

## Preso eta deportatuentzako dirulaguntzak

### Zer da

Arrazoi ezberdinengatik preso edo deportatuta dauden herritarrei familiak egiten dizkien bisitek sortutako gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoak dira.

**2015. urtean emandako laguntzak**

KOPURUA	BANATUTAKO DIRUA
2	6.344,18 €



# Atzeritarrak

- Itzulpen eta interprete zerbitzua
- Osintxuko aniztasun eta elkarbizitza proiektua







**Espediente kopurua: 2 (% 0,12)**

**Gastua: 3.707,59 € (% 0,16)**

**Espedientek edukitako bilakaera azken urteotan**



## Espedienteen banaketa





# atzeritarak

## ITZULPEN ETA INTERPRETE ZERBITZUA

### Zer da

Hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten bi solaskidek elkar ulertzeko telefono bidezko aldi bereko interpretazio zerbitzua da, 51 hizkuntzatan erabiltzeko dago prestatua.

2016 urtean **5** pertsona atenditu dira zerbitzu honen bitarte: 3 kasutan urdu hizkuntza erabili da eta 2 kasutan arabiera.

Begarako Udalak 2016 urtean esleituta zituen 190 minututatik **143** minutu erabili ditu. 2013ko ekiainetik zerbitzua EUDEL-ek eskaintzen du doan zerbitzua.

## OSINTXUKO ANIZTASUN ETA ELKARBIZITZA PROIEKTUA

2014 urtean Osintxu auzoan aniztasunaren eta elkarbizitzaren egitasmotik irtendako Auzoko dinamikari jarraipena egin zaio Euskara Departamentuarekin batera.

2016an bi astez behin 6 pertsona elkartuta, dinamika aldatu eta hilean behin asteburuetan ekintza bereziak egitea erabaki zuten, zabalagoa izateko. jende gehiagorengana hurbiltzeko. Urtarrila eta uztaila bitartean funtzionatu arren, 2016ko iraila ahulago hasi eta ez da talderik sortu. Kanpaina ezberdinak egin dira jendea gerturatzeko.

A hand with a pointing finger is visible on the left side of the image, pointing towards the text. The entire image has a blue tint.

# Beste batzuk


- Dutxa zerbitzua
- Ibiltariak
- Etxebizitza kaleratzeak
- Beste batzuk

**Espediente kopurua: 26 (% 1,48a)**

**Generoa: Gizonezkoak % 38,46 eta emakumeak % 61,53**


**Gastua: 61.783,17 €. % 2,68**

#### Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



beste batzuk

## Espedienteen banaketa



Arlo honetan sartzen dira arlo berezi batekin zerikusirik ez duten eta departamendutik kudeatzen diren hainbat espediente, hala nola, estatistiketarako informazio eskaera, herritarren keak, beste erakunde batzuekiko elkarlana, ibiltariak, dutxa zerbitzua, e.a...

## Dutxa zerbitzua

### Zer da

Etxean dutxarik ez edo etxerik ez duten kasuentzat, garbiketa pertsonalerako ematen den zerbitzua da. Zerbitzu hau departamendu barruan lanean ari garen kasuentzat zein kasu puntualentzat da, hala nola, ibiltariak.

**Ez da eskaini** dutxa zerbitzurik.





## Ibiltariak

### Zer da

Etxebizitza gabe, joan-etorrian dabiltzan ibiltariei urtean behin ogitarteko bat eta autobusez urrunen Donostia, Bilbo, Gasteiz edo Iruñera joateko txartel bat ematen zaie.

**23 laguntza** eman dira, 20 gizonezko eta 3 emakumezko.

## Etxebizitza kaleratzeak

### Zer da

Etxe kaleratze baten aurrean epaitegitik informazioa helarazten digute egoeraren berri eman eta babesgabekotasun egoera bat emanez gero neurriak hartzeko eskaera egin.

Kasu hauetan, urgentziako prozeduraz, etxe kaleratze arriskuan dagoen pertsonari epaitegitik jasotako idatziaren berri ematen zaio eta gizarte zerbitzuetan hitzordu bat izateko aukera eskaintzen zaio egoera aztertu eta laguntzeko aukerarik izanez gero, beharrezko laguntzak eskaintzeko.

Epaitegira etxe kaleratze egoeran dagoen kasuari buruzko informazioa emanez txostena bidaltzen da.

2016. urtean horrelako **2** kasu eman ziren. Gizonezko 1 eta emakume 1.

## Beste batzuk

### Zer da

Atal honetan sartzen dira sailkapen konkretu baten barruan sartzen ez diren espedienteak.

2016. urtean horrelako **19** espediente tramitatu dira.



# prebentzioa

- Prebentzioa familian
- Prebentzioa eskolan
- Jai eremuko programa
- LONJA LAKET!
- Edari alkoholdunak eta tabakoa adin txikikoei saltzearen gaineko kontrola
- Drogomendekotasunen inguruko aholkularitza
- Mendekotasun ezberdinen tratamendurako diru laguntzak




# prebentzioa


**Espediente kopurua: 6 (% 0,34)**

**Gastua; 120.752,06 € , % 5,20**

## Espedienteen bilakaera azken urteetan



## Espedienteen banaketa



# prebentzioa

## Prebentzioa familian

### Zer da

Kontuan izanda, Familia pertsonaren lehendabiziko sozializazio eremu naturala dela, Familian garatzen diren oinarrizko portaerak, jarrerak eta baloreak jokabide arriskutsuak saihesteko izan daitezten Familiari eskaintzen diogun laguntza da.

Hain zuzen ere, informazio, formazio eta orientazioaren bidez, seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gaiak jorratzeko guneak eta baliabideak sortzen ditugu.

### \* Formazio arloa

**236** pertsonengana iritsi da.

- Eskoletan lantzen diren prebentziorako programekin lotutako hitzaldiak. Hain zuzen ere, bizitzako trebetasunak prebentzioan duten garrantzien ingurukoa; alkohola, kannabisa edota drogen inguruko arriskuei buruzkoa; teknologia berrien eta internetaren erabilera arduratsu et aseguruaren ingurukoa; Heziketa afektibo-sexuala eta genero indarkeriaren ingurukoa.
- Eskoletako programez gain, beste hiru hitzaldi ere egin ditugu eta baita on-line ikastaroa. Azken hau, 0-2 eta 2-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei bideratuta izan da.


### \* Orientazioa

Etxadiren “Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa”ren bitartez, eskaintzen dugun Familiei bideratutako Orientazio Zerbitzuan honako kontsulta kopurua jaso dugu:

**54** kontsulta jaso dira, guztiak 22 familiak egindakoak dira.

**GUZTIRA GASTATU DENA: 10.050 €**

## Programaren bilakaera azken urteetan honakoa izan da



## Prebentzioa eskolan

### Zer da

Eskolan drogen mendekotasunei aurre hartzeko ikasleei, irakasleei eta ikasleen gurasoei eskaintzen zaien informazioa, formazioa, aholkularitza eta baliabideak dira. Helburua drogak hartzen hasteko adina atzeratzea eta 18 urtetik beherakoen artean kontsumoa murriztea da. Horretarako, babes faktoreak hartzen dira kontuan, eta Lehen Hezkuntzan batez ere, modu ez zehatzean, bizitzarako trebetasunak lantzen dira; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Ondorengoan, berriz, modu zehatzean drogen inguruko informazioa, eta arriskuen inguruko hausnarketa bultzatzen da besteak beste.



# prebentzioa

- Erabilitako programa kopurua: **8**
- Programa guztiei eskainitako denbora: **27** ordu ikastetxe bakoitzeko
- Gurasoei eskainitako saio kopurua: **21**
- Izandako estaldura:
  - ikasleak: ..... **1.892** (897 neska; 995 mutil)
  - inplikaturako irakasle kopurua:..... **91**
  - gurasoak: ..... **163**
- Programek batz besterik jaso duten balorazioa 0 eta 10 bitarteko eskala batean, non 0 oso negatiboa den eta
  - 10 oso positiboa: ..... **7,58**
  - irakasleek..... **7,7**
  - gurasoek:..... **7,66**
  - ikasleek:..... **7,46**

**Kostuari dagokionez, 27.191,7 € izan da**

**Programako partaideen kopurua: 2.146 pertsona**

## Jai eremuko programa Zer da

Jai eremuan droga-kontsumoari loturiko arriskuak murrizteko, batik bat, droga ongi pasatzeko hartzen dute gazteen artean, testing izeneko esku hartzea bultzatzen dugu. Horren bidez drogen inguruko informazioa eskaintzen zaie (zein eratako arriskuak duten, zein ondorio izaten dituzten,...) eta hartu behar dituzten drogen analisiak egiteko aukera izaten dute osagaien inguruko informazioa jasotzeko.

- Bergarako Pentekoste Jaietan: maiatzaren 14an  
**Gastuari dagokionez, 2.500 €-takoa izan da.**

EGINDAKO ESKUHARTZEAK	GUNEAN ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA	ANALISI GUNEAN ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURURA	EGINDAKO ANALISIAK
- Bergarako Pentekoste Jaietan: maiatzaren 14an	<b>248 pertsona:</b> - 69 emakume - 179 gizon	<b>41 pertsona:</b> - 0 emakumea - 41 gizon	<b>18 analisi:</b> - 5 hachis - 6 marihuna - 2 Kokaina - 5 anfetamina - 2 MDMA - 0 Ketamina

## Lonja Laket!

### Zer da

Lonja Laket! Zerbitzuak gazteen lokaletan prebentzio esku-hartzeak aurrera eramaten ditu. Bere helburuak dira: Lonjetan dauden gazte kontsumitzaileen kontsumo arriskuak eta drogen kontsumoarekin lotutako arriskuak murriztea, lonjetan dauden gazte ez kontsumitzaileen erabakia sendotzea, eta lonjen okupatutasunak erabiltzaileei nahiz auzokideei eragin diezaieketen arriskuak gutxitzea.

Parte hatzaile kopurua guztira:	<b>59 pertsona</b>	Neskak: 44	Mutilak: 15
59 pertsona (3 lokal)	(3 lokal)		
Adina batz bestea	20,56		
Ebaluazioa bata beste	9,1		



prebentzioa

**Edari alkoholdunak eta tabakoa adin txikikoei saltzearen gaineko kontrola**

**Zer da**

Edari alkoholdunak eta tabakoa saltzen dituzten establezimenduei adin txikikoei saltzeari buruzko araudiei inguruan informazioa ematen zaie, eta salaketa aurrean Tokiko poliziek ofizioz eskua hartzen dute. Aurten ez da espedienterik ireki.

**Drogomenpekotasunen inguruko aholkularitza**

**Zer da**

Drogen inguruko informazio, orientazio eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen duen gunea da. Bertan, egoera aztertzeko eta baloratzeko laguntza eskaintzeaz gain, esku-hartzerako edo tratamendurako egon daitezkeen aukera eta baliabideen inguruko azalpenak ere ematen dira.

- Guztira **2 kontsulta** jaso dira.
- Bat erretzea lagatzeko esku hartzea izan da eta bestea hanbat kontsumo arazo eta arazoak familian, azken honen adina 25-35 bitartekoa da eta gizona da.
- Egoerari dagokionez, tratamenduan dago eta diru-laguntza eskaera egin du 2017an.

**Mendekotasun ezberdinen inguruko tratamendurako dirulaguntzak**

**Zer da**

Mendekotasunen ezberdinen inguruko tratamendua egiten ari direnentzako diru-laguntzak dira. Diru laguntza horiek bidaiak eta lehen mailako beharrianak ordaintzeko dira.

ARTATUTAKO KASUAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	KOSTUA
0	0	0	0

**Guztira tratamendurako diru laguntzetan aurreikusita zeuden 3.000 € eta 0 € gastatu dira.**







# berdintasuna


- **Genero indarkeriaren aurkako laguntzak**  
1.go harrera edota akonpainamendua  
Laguntza psikologikoa  
Aholkularitza juridikoa  
Ostatua ematea
- **Genero indarkeriako kasuentzako diru laguntzak**
- **Bestelako jarduerak**
- **Berdintasun plana**

**Espediente kopurua: 43 (% 2,07a)**

**Sexua: Sexua zehaztuta daukaten espedienteen % 100 emakumezkoa.**


**Gastua: 100.350,75 €, % 4,35**

**Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan**



**berdintasuna**

### Espedienteen banaketa




## Genero indarkeriaren aurkako laguntzak

### 1.go harrera edota akonpainamendua.

#### Zer da

Genero indarkeria jasaten ari den emakumeari 1.go harreta eta akonpainamendu zerbitzua.

2016 urtean **16 kasu** atenditu dira.



## Laguntza psikologikoa


### Zer da

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatu eta finantziatzen duen laguntza da. Udaletik 1go balorazioa egiten da eta Foru Aldundira bideratzen da.

**8 kasuk** jaso dute laguntza psikologikoa genero indarkeriaren ondorioz. Hauetatik **DENAK EMAKUMEZKOAK** (biktima bezala). Aipatu behar da:

- Hauetatik **4 kasu** izan dira berriak (guztiak emakume biktima bezala): 4ak indarkeria matxistaren ondorioz.
- Beste kasuak aurretik zeuden terapian **4** : 3 indarkeria matxistaren ondorioz emakume biktima bezala, 1 sexu indarkeriaren ondoriozko emakume biktima bezala.

### Bilakaera azken urteetan





### Aholkularitza juridikoa

#### Zer da

2016. urtean **kasu bakarra** bideratu Foru Aldundiak duen aholkularitza zerbitzura.

### Ostatua ematea

#### Zer da

Genero indarkeria kasuen ondorioz urgentziaz etxetik irten behar diren kasuentzako aldi baterako ostatua emateko baliabideak dira. Baliabide hauek Bergarako Udalaren Babes Etxea edota Foru Aldundiak dituen Urgentziazko Zentroak izan daitezke. Epe luze batetara begira, Eusko Jaurlaritzatik genero indarkeria biktimentzako Zuzeneko Esleipenerako Etxebizitza zerbitzurako deribazioa egiten da. 2016. urtean **3 eskaera** egin dira 2 Foru Aldundiko urgentziazko harrerarako eta 1 Foru Aldundiko egonaldi ertaineko zentrorako.

Bergarako Babes Etxeko gastua **3.285,15 €**-koa izan da.

### Genero indarkeriako kasuentzako diru-laguntzak

#### Zer da

Gizarte Laguntza hauen helburua biktimen eskura bizirauteko gutxieneko baliabide batzuk jartzea da, diru laguntza arruntak edota enplegu bat lortu arte haien erasotzaileengandik banantzeko aukera izan dezaten. Diru-laguntza hauek Udalak urgentzia bezala edota epe ertainago batetara Eusko Jaurlaritzak ematen ditu.

2016 urtean zehazki, **6** diru laguntza eskaera egin dira:

- 1 Udaleko urgentziako diru laguntza.
- Eusko Jaurlaritzarako eskaera 5 egin da.

Udalaren kostua **240 €**-koa izan da

### **Bestelako jarduerak**

#### **Zer da**

Hainbat gaietan interbentzio edota laguntza ematen da, hala nola, aurretik aipatutako aholkularitza juridikoa, baimen eta papelen erregularizazioa, errolda, diru laguntzen inguruko kontsultak, Lanbiderentzako ziurtagiriak – RAI erreklamazioak, errolda...- , adingabekoen pasaporterako gestioak, **2 kasu** izan dira atendituak.

### **Berdintasun plana**

#### **Zer da**

Udalak onartutako, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana 2010-2013 da. Bere indar epea bukatu ondoren egindako ebaluazioan ikusi da garapen maila txikia izan duela, ez dela errotu, eta herrian ez duela inpakturik izan; baina marko bat eskaini du esku-hartzea nondik nora bideratu behar den zehazteko, eta hainbat arloetan genero ikuspegia txertatzeko gogoeta minimo bat ere sustatu du. 2016an adostu da II. berdintasun plana egitea eta lanketarekin hasita, 2017an bukatzea aurreikusten da.

Erreferentziako marko horrekin jarraituz, 2016. urtean Berdintasunari dagokionez honako ekintzak burutu dira:





EKINTZA	AZALPENA
UDAL BARNEAN EGINDAKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Udaleko Mugikortasun Planean 2012an egindako herriko puntu beltzen ikerketa kontuan hartzea. Eta txosten bat presta du udaleko Mugikortasun Planean genero ikuspuntua txertatzeko.</li> <li>- Eraso eta erahilketa sexista kasuetarako udal erantzun prozedura adostu da Martxantereekin.</li> <li>- II.Berdintasun planaren lanketarekin hasi da eta elkarrizketak egin dira hainbat sailletako teknikariekin.</li> <li>- Hainbat pleguetan berdintasun klausulak txertatzeko proposamenak egin dira.</li> </ul>
HERRI MAILAN EGINDAKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleei ematen zaien sexu-heziketan tratu onen gaia DBH lantzen jarraitu dugu. Guztira 393 ikasleengana iritsi gara. Bestalde, hiru ikastetxeetako gurasoekin 6 ordu eta irakasleekin 4 ordu guztira landu da programa.</li> <li>- Sexu eta indarkeriari buruzko aholkularitza zerbitzua “Biluzik mundura” zerbitzua, 2016an arreta zuzena eskaintzeko 20 ordu erabili dira guztira. Guztira 3 pertsona hurbildu dira, emakumezko bat eta gizonezko bi. Bestalde, zerbitzura hurbildu dire gainontzeko pertsonak Martxanteretako kideak eta kale hezitzaileak izan dira.</li> <li>- Martxantereekin koordinazioa elkarlanean aritzeko (azaroak 25aren inguruan, martxoak 8, udal erantzun prozedura adosteko...).</li> <li>- Sentsibilizazio jarduerak : <ul style="list-style-type: none"> <li>• MARTXOAREN 8an: <p>“Gure 2016ko memoria. Gizarte Zerbitzuak 85 genealogia feminista”ren inguruko hitzaldia antolatu zen eta herriko eragile ezberdinekin martxorako programa osatu genuen. Parte hartu zuten eragileak: Martxanterak eta Jardun.</p> </li> <li>• JAIETAN berdintasunarekin lotutako mezuak zabaltzeko, eta eraso sexistei aurre hartzeko pegatinak, kartelak eta gomendioak landu ziren Martxantereekin batera, tabernetan eta txosna gunetan jartzeko. San martinetarako prentsa oharra atera zen eta makumeen pilota partida antolatu zen kirol arloarekin batera.</li> <li>• AZAROAREN 25aren inguruan, Beldur Barik lehiaketaren zabalkuntza herriko eskolen artean egin dugu (eskuorriak eta kartelak). Kultur arloarekin batera zine-klubaren barnean “Las Pilotaris” eta “Pilota Girls” pelikulak proiektatu ziren eta ondoren mahai ingurua egin zen Reyes Azkoitia eta Izaro Izarberek (Maite Aristegik dinamizatuta). Martxantereekin elkarlanean “keimada antipatriarkala” antolatu zen musikaz girotuta.</li> <li>• Egondako genero indarkeriaren hilketen eta erasoaren aurrean hainbat elkarlanean eta adierazpen instituzional egin dira. Horrez gain, eraso eta erahilketa kasuetan udalaren erantzun prozedura adostu da Martxantereekin batera.</li> </ul> </li> </ul>

**Plana garatzeko aurrekontua 29.000 eurokoa zen eta gastatu dena: 12.909,25 euro izan da**

**Kostu total: 12.909,25 €**



# Enplegua eta garapen ekonomikoa

- Heziketa Okupazionalako ikastaroak
- Enpresa-Negozioak (Ekimenak)
- Orientazio enplegu zerbitzua
- Garapen ekonomikorako ekimenak
- Merkataritza indartzeko planak
- Ostalaritzarekin lankidetzak
- OXIRONDO AZOKAren dinamizazioa
- BERELAN foroa
- Gizarteratze ibilbideak






**Espediente kopurua: 83 (% 0,74a)**


**Generoa: Genero daukaten espedienteen artean, 14,28a emakumezkoa eta %85,72a gizonezkoenak izan dira.**

**Gastua: 211.021,14 €, % 10,52a**

**Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan.**



## Espedienteen banaketa





## Heziketa Okupazionalako ikastaroak

### Zer da

Lanik gabe dauden 18 urtetik gorakoentzat, prestakuntza egoki bat lortu dezaten, Ikastaroak eskaintzen dira Miguel Altuna Institutuan LANBIDE zerbitzuaren diru laguntzarekin:

2016. urtean zehar ikastaro **1 eskaini** da: **Automatizazio-sistema industrialen muntaketa eta zainketa**

Partaide kopuruak:

- 2017ko urtarriletik ekainera bitartean, 390 orduko ikastaroa eskaini da Miguel Altuna Institutuan, hurrengo partaideekin:

IKASLEAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	JAURLARITZAREN LAGUNTZA
15	0	15	42.962,40 €

- Ondoren, Lan - Praktikak egin dira enpresetan.  
Esan behar da, 2016ko Formazioaren hasiera, irailean izan beharrean 2017ko urtarrila arte atzeratu dela, LANBIDE zerbitzuak onarpenaren ebazpena 2017ko urtarrilaren 5ean argitaratu delako. Bien bitartean, ikastaroa gauzatzeko baimenik ez zegoen.

## Enpresa-Negozioak (Ekimenak)

### Zer da

Negozio-Enpresa bat martxan jartzeko asmoa azaltzen duten herritarrei aholkularitza zerbitzua ematen zaie.

Bideragarritasun plana egiteko eta hasierako pausoak, ideia negozio bihurtzeko, laguntza eskaintzen da.

Negozioak martxan jartzeko asmoarekin, 2016. urtean **6 ekimen berriren** bideragarritasun ekonomikoaren azterketa egiteko aholkularitza zerbitzua eman da.

Aurkeztutako kontsultetako partaideen banaketa genero ikuspegitik 4 gizon eta 5 emakume.

Aztertutako negozio motak izan dira:

- Turismo eta aisialdia
- Kultur ekintzen dinamizazioa
- Pentsuen almazena
- Kirol instalazioen kudeaketa
- Eragileen arteko partaidetza sustatzea





## **Orientazio zerbitzua**

### **Zer da**

Aurtengo Memoriako datuak baloratzerakoan kontutan izan behar dugu Udalak Orientazio zerbitzu propioa izan duela, eta zerbitzua kudeatzeko sisteman aldaketak izan direla. Aurrez, urtero Lanbide zerbitzuarekin lotura bakarra izan da. Oraingoan berriz, Lanbidetik haratago doa langabezia egoeran dauden herritarrek jasotzen ari diran zerbitzua.

GUZTIRA	Eguneraketak Deribazioa	Orientazio ekintza
300	176	124

GIZONEZKOAK	EMAKUMEAK
167 ekintza	133 ekintza

Zerbitzu antolaketa berri honetan jasotzen den Orientazio ekintzetan, ondorengo hauek barne hartzen dira:


- Enplegarritasunaren balorazioa.
- Gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuaren diseinua eta jarraipena.
- Formakuntza.
- CV eta Aurkezpen gutunak.
- Elkarrizketa.
- Informazio profesionala.
- Orientazio orokorra.

URTEKO	DENARA	HASIERAKO ELARRIZKETAK	ESKARIETAN ALDAKETAK	BAJAK ALTAN JARTZEA	BERRIZTEA
<b>2016</b>	<b>300</b>				
2015	784	61	306	52	365
2014	1.172	270	189	64	649
2013	748	121	127	67	433
2012	332	98	124	30	80
2011	275	80	76	38	81
2010	561	114	198	141	108
2009	586	106	190	200	90
2008	452	81	140	148	83
2007	452	73	149	167	63





### Ondorengo taulan zerbitzuaren bilakaera azken urteetan azaltzen da




Bergarako Udalak eskaintzen duen orientazio zerbitzua LANBIDE-k finkatutako antolaketa eta funtzionamendu ereduarekin zuzenean erlazionaturik dago.

Honela, LANBIDE-k Bergarako Udalarekin zerbitzuaren eskaintza hitzartu edo ez hitzartzeak eragin zuzena du eskaintzen den zerbitzuan.

Grafikan adierazten diren datu dantzak Bergarako Udala – LANBIDE arteko hitzarmena eta hauen iraunaldiaren ondorio dira.





Lanbide Orientazio Zerbitzuagatik 2016ko deialdian **13.735,89 €**-ko diru laguntza jaso zuen Udalak.

### Garapen ekonomikorako ekimenak

#### Merkataritza indartzeko plana

##### Zer da

Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia da, udalerriko merkataritza sektore gisa eta espazioan antolatzeko neurri eta jarduerak biltzen dituena.

Dokumentuaren muina merkataritzaren eta herritarren erosketa – ohituren azterketa da.

Planak berarekin dakar bide publikoan obrak egitea merkataritza sektorea erakargarria izan dadin Udalerri barruko mugikortasuna errazteko.

2016.urtean Eusko Jauriaritzak PERCO – MERKAGUNE programan Udalei zuzendutako diru-laguntzak izendatu zituen. Beraz, bide honetatik, Udalak 2 karpa berri eta aurreko lonak berrizteko diru-laguntza jaso du, 8.126,40 € eta egindako gastua 11.692,23 € izan da.





## enplegua eta garapen ekonomikoa

Bergaran garatzeko PERCO aren bidez egindako ikerketan jasotakoa:

- Egoeraren diagnosia.
- Eskaria eta eskaintzaren analista.
- Esku – hartze plana.

Aurreikusitako ekintzak aurrera eramateko 2013. urtean **BERGARA BIZI** egitasmoa abian jarri zuen Udalak, Bergarako merkatariekin orokorrean eta Bedelkar elkartearekin bereziki, lankidetzaz, dinamizazio eta sentsibilizazio dituzten helburu egitasmo honek.

2016an zehar, Bedelkar elkarteak **BERGARA BIZI** egitasmoa bereganatu eta Udalaren lankidetzarekin hainbat dinamizazio eta sentsibilizazio ekintza egin dira. Hauek bultzatzeko, urtean zehar **24 bilera** egin dira.


Urtean zehar aurrera eraman diren jarduerak honako hauek izan dira:

- 2016. urteko kudeaketa plana zehaztu da.
- Merkatariei zuzendutako formazioa .
- Ihaulerietako kanpaina.
- Garagardo Feria Bolu auzoan.
- Udaberri Eguna ekitaldia, personal Shoper eta moda desfilearekin.
- Bedelkar bloga eta sare sozialen kudeaketarako teknikaria
- POP UP ekitaldia Urria.
- POP UP ekitaldia Abenduan.
- Merkeladi Azokak: Udazken eta Udaberrian.
- Gabonetako kanpaina berezia: Eskaparate lehiaketa, Apainketa eta Hauer eta gazteei zuzendutako ekintzekin.
- San Martinetako Ferian ere herriko komertzioen presentzia izateko eskaintza berezia egin zaie burdindegi, gozotegi, lanerako jantzi, eta landare eta pentsuen komertzioei. Hauetako lau komertzio izan dira Feria honetan.

Ekintza hauek burutzen, BERGARA BIZI programan **13.042 €** gastatu ditu Udalak.

Bestalde, Bedelkar elkarteari, dinamizazio ekintzekin jarraitzeko emandako diru laguntza **12.000 €** izan da.

### Merkataritzara Bergarako Udalak bideratuko dirua: 25.042 €





# enplegua eta garapen ekonomikoa

## Ostalaritzarekin lankidetzaz

### Zer da

Udalak, tabernen eta jatetxeen ardura eta premiak zuzenean ezagutzeko, irtenbideak adostu eta elkarlaneko aukerak aztertzeko eta merkatariekin hasitako BERGARA BIZI ibilbidea, ostalariekin ere abian jartzeko asmoarekin, bilera deia egin zuen 2014ko urritik aurrera. Guztira 10 bilera egin dira.

Bilera hauen ondorioz, Tabernarien lan-taldea sortu zen eta lehentasunak markatu ziren:

- Dinamizazio ekintzak Udalarekin eta Bedelkarrekin (Bergara Bizi) lankidetzan antolatzea.
- Azokako dinamizaziorako beraien partaidetza (hileko lehen asteazkeneko azoketan pintxo potea txandaka).
- Espazio publikoaren erabilera adosteko prozedura martxan jartzea inplikatur dauden partaide guztiekin (herritarrak, bizilagunak, tabernariak, udala, garbitzaileak, terraza erabiltzaileak...) zirriborroan dago prozeduraren esleipenerako oinarriak.

Landu beharreko asmo hauetatik 2016an gehien landu dena ekimena asteazkenero, Oxirondo Azokan parte hartzea izan da. Bertan Pintxo potearen postua jarri eta kudeatzen dute horretarako izena emanda duen tabernariak.

Bestalde, Udalak antolatzen dituen luntx eta bazkarietarako izena eman zuten tabernen zerrenda erabiltzen da ekitaldi bakoitzerako txandakatur.

## **OXIRONDO AZOKA**ren dinamizazioa

### Zer da

2014ko uztailean hasitako Hileroko lehen eguaztenetako azoka bereziak arrakasta bazuela, baina larunbatak izan ezik ez zutela asteroko beste egunetan eragin handirik ikusita, asteazkeneroko azokara bisita, ohitura bihurtzeko asmoarekin, 2015. urte amaieran, **eguaztenero azoka berezia** egitea baloratu zen.

Azokako lan-taldearekin adostuta, eta ekainetik abendura **5 bilera** egin ondoren.

Aurrez, lehen eguaztenetan egindako Azokan parte hartzen zituen postu guztietako **arduradunen datuak, produktuak** eta eguaztenero Azokara etortzeko **disposizioari** buruz informazioa jaso zen.

Bilera hauetan landu beharreko ekimenak zehaztu ziran eta aurrera eramaten ari dira, besteak beste: **Mizpirualde egoitzarako bertako produktuen hornitzaile dira Azokako postuak. Lora eta Landareen Azoka** antolatzen da eta **Balkoien apainketa lehiaketa ere.**

Azokako lan-taldearekin adostuta, eta 2016ko urtarriletik abendura **9 bilera** egin ondoren. Oxirondo Azoka indarberritzeko asmoarekin 2016an zehar landu diran helburuak honako hauek dira:

### **1-Azoka biziberritzea.**

Tokiko garapenaren gune bat bilakatu nahi da Bergarako Azoka, elikagaien merkaturatzea indartzeaz gain beste produktu eta jarduera batzuk bertara bideratuz.

### **2- Lehen Sektorea indartzea.**

Bertako eta sasoiko produktuen merkaturatzea bultzatzea, lehen sektorea biziberritze aldera aurrera pausuak eman, herritarren sentsibilizazioa eta kontzientziak sustatzeko. 2016ko abenduan ekimenari buruz egindako balorazioa honakoa izan da:




 enplegua eta  
garapen ekonomikoa

### 1.- Eguaztenetako azokak.

Bergarako Udalak programazio berezia landu du urtean zehar, asteazkenero helburu horiek lortzeko asmoarekin.

Asteazkenero dinamizazio ekintza berezi bat, hitzaldi, jardunaldi, tailer, jolas, magia, pailaso.... eta pintxo potea eskaini duen Tabernaren zerbitzua izan da bertan.

Programazio honetara 8.770 € bideratu dira, hauetatik 5.200 € Udal bonoetan banatuta, merkataritza dinamizazioa bultzatuz aldi berean.

#### Balorazioa:

Azokako merkatariekin hilean behin bilera izan dugu ekintzen programazio eta beraien kekkak bideratzeko asmoarekin.

Ekintzetan parte hartzen duen jende kopurua, 12 pertsonen bueltan.

Haurrei zuzentzen zaienean berriz parte hartzea haundiagoa da, goian ludoteka dagoelako.

Ekintzetan parte hartzera datozenek erosketa egiten dutenik ezin da esan, gutxi batzuk bai eta beste batzuk ez.

Dinamizazio ekintzak berriz errepikatzen hasita.

Pintxo poteak funtzionatzen du, 50 pertsona inguru fidelizatuta daude.

Azokako postuetako saltzaileek ez dute salmenta gehiago nabaritzen.

Orain, beraiek ere balorazioa egin dute, galdetegi baten bidez eta orokorrean adierazitakoa:

- Arrakasta duen ekintza mota, eskulanak, hau da haurrak erakartzen dituen.
- Pintxo poteak jendea mugitzen du eta salmentetan ere eragina du.
- Udara ez da garai egokia azokan, sasoirik onena negua da.

#### Hurrengo urterako proposamena:

Dinamizazio ekintza osagarria **hileko lehen eguaztenetan** egitea **soilik**.

Eta bertan landu beharreko arloak finkatu: osasuna, nekazaritza, merkataritza, gastronomia, elikadura...

Pintxo potea berriz, eguaztenero mantentzea.

## 2.- San Martin Feriaren kokapena.

Irailleko San Martin Feriaren kokapena Oxirondo azoka ingurura eraman da.

### Balorazioa:

Bertan parte hartu zutenen postuetako ekoizleak eta herritarren balorazioa positiboa izan zen.

**3.- Mizpirualde Egoitzan ekoizle lanak.** Oxirondo azokako postuetako kideek ekoizle lan taldea osatu dute eta Mizpirualde egoitzara bertako produktua bideratzen dute astero.

### Balorazioa:

Momentuz hasi berriak dira urrian, sei hilabete barru balorazioa egitea proposatzen da.

## BERELAN foroa

### Zer da

Bigarren sektoreak Bergaran zuen bilakaeraren aurrean,. Bergarako 2010 – 2020 Plan Estrategikoan jasotakoari jarraituz, Udal Korporazioak bigarren sektorearen egoera aztertu eta irtenbideak topatu asmoz herriko eragile ezberdinekin batera lan taldea osatu zuen, BERELAN foroa. Bergara, Elgeta eta Antzuolako herrien garapenerako sortutako lan talde hau, informazio bilketa, gogoeta eta ekintza berrien proposamenerako gune bilakatu da eta ondoren zehazten diren helburuak ditu:

### Helburu Orokorra:

- Bergara, Elgeta eta Antzuolako herrietan Bigarren sektoreak duen egoeraren aurrean irtenbideak bilatu, aurkitu eta dauden aukera aproposenak inplementatu.

### Helburu Zehatzak:

- Gaur egun bigarren sektoreak duen egoeraren diagnostikoa egitea, gure inguruko egoerekin konparatuz.




 enplegua eta  
garapen ekonomikoa

- Hiru herrietan kokatuta dauden enpresen premiak zehazki ezagutu eta behar horiek asetzeko bideak landu.
- Hiru herrietan kokatuta dauden enpresak bertan mantentzeko baliabideak jarri (zergak, kokapena erraztu, tramite eta baimenak...).
- Enpresa berriak 3 herrietan kokatzeko baliabideak jarri ( zergak, kokapena erraztu, tramite eta baimenak...).
- Merkatu berriak ezagutu.
- Produktu aukera berriak ezagutu.
- Hiru herrietako enpresen berrikuntza maila aztertu.
- Hiru herrietako enprekin berrikuntza prozesuak martxan jarri.

**BERELAN FOROAK**, 2016 urtean zehar **10 bilera** izan zituen eta bertan landutako gaiak honako hauek izan ziren.

- Urteko Kudeaketa Planak prestatu
- Erakundea sortzeko ESTATUTUEN gaia lantzea, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren onespenerekin.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eginiko bisita Bergarara, BERELAN eta ENPRESARE Foroan aurkezpena
- **Zientzia Teknologia eta Berrikuntza** inguruan jardunaldiak antolatu 2015eko azaroan. 9.000 €ko kostua izan zuten.
- Ekintzailetasun soziala lantzeko **Berrekin – Berregin** formazio saioak antolatu 45.000 €ko kostuarekin.
- Enpresa berriei **Alokairurako diru-laguntzak** Bergarako Udalen eskutik. Baldintza Plegua zehaztuta eta guztira **3 enpresa berrik** laguntza eskatu zuten.
- Berelan Foroak 2017an zehar bultzatu beharreko proiektuak ere zehaztu ziran.



BERELAN FOROtik abiatuta, Bergara, Elgeta eta Antzuolako 3 herrietako industria eragile batzuekin lan-talde propio bat martxan jarri zen 2013an ere: **ENPRESARE FOROA**.

**ENPRESARE FOROA** sektore industrialaren beraktibazioa bultzatzeko helburuarekin sortutako lan-taldea da. Bertako partaideak honako hauek dira: enpresetako ordezkariak, kontseilariak, Miguel Altuna Institutua, Debagoieneko Garapen Agentziako eta Udal ordezkariak.

Talde honen helburu zehatzen artean, enpresen beharrak ezagutzea eta enpresen etorkizuna garatzea daude.

**ENPRESARE FOROAK 9** bilera egin ditu eta aurrera eraman dituen ekintzen artean, honako hauek daude:

Enpresei zuzendutako ekintzak:

Nazioarteratze programa.

Antolakuntzen berrikuntza eta dibertsifikazio programa.

Hausnarketa estrategikoa.

Guztira inguruko **14 enpresek** parte hartu dute ekimen hauetan.

Bestalde, Enpresare Foroa dinamizatzeko eta egonkortzeko zerbitzua kontratatu zen 2016eko abendurarte ondorengo helburuekin:

1. Bergarako, Antzuolako eta Elgetako enpresen lehiakortasunerako posizioak berrindartzea, elkar-lankidetzaren bidez.
2. Jarduera ekonomiko berriak sortzea. (Sustapena)
3. Enpresare foroa bera iraunarazteko behar den antolamendu-egitura zehaztea eta martxan jartzea.

Zerbitzu hau Hobest eta OPE aholkularitza enpresen bidez aurrera eraman dira.

Ekimen honi esker:

5 enpresa txiki hausnarketa estrategikoa bideratu dute.

5 enpresa traktore eta 9 enpresa txiki beraien arteko ezagutzaren bidez elkarlanerako aukera guneak aztertzen eta lantzen aritu dira urtean zehar eta 2017rako ere jarraitzeko asmoa adierazi dute.

Guztira, 45.680 € gastatu dira eta 29.276 €ko diru-laguntza jaso da Gipuzkoako Foru aldunditik.





enplegua eta  
garapen ekonomikoa

## Gizarteratze ibilbideak

### Zer da


18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa abenduaren 23ko 18/2008 LEGEAK zehazten du, laguntza hauen onuradunen betebeharrak bat izango dela Administrazioarekin gizarteratzeko prozesua negoziatu eta adostasuna lortuz gero hitzarmena sinatzea. Prozesu horren helburua, laneratzea edo eta pertsona horrek izan ditzakeen beste zailtasun batzuk gainditzea eta gizarteratzea lortzea da.

Horretarako, Bergarako Udalak hainbat baliabide ditu: Alde batetik, Enplegu teknikaria eta bestalde, Gizarteratze teknikaria.

Zerbitzu hauen bidez gizarteratzeko ibilbidea negoziatu eta helburuak lortzeko jarraipena egiten da.

Gizarteratzeko lan metodologia gaur egun arte pertsonari arreta eta orientazioa banan-banan ematera bideratuta egon da eta horrekin batera pertsonak gizarteratu ahal izateko ekintzak sortzeko eta ezartzeko jarduerak hartu izan dira kontutan. Egun errealitatea aldatu egin da, lan-metodologia ezberdin baten beharra ikusi da, taldeko esku-hartzea banakako esku-hartzearekin batera uztartzea alegia, eta horrek Gizarteratze lanaren aldaketa ekarri du.

**29 pertsona gizarteratze ibilbidean egon dira 2016an eta hauetatik  
23 izan dira kasu berriak.**



### Artatuak

29 pertsona gizarteratze ibilbidea eta artatuak 75

EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
17	58	75

### Kasu berriak

EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
4	19	23




enplegua eta  
garapen ekonomikoa

### Gizarteratze Zerbitzuan jarraitzen duten kasuak

EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
6	24	30

Zerbitzuan baja ematearen arrazoi nagusien artean herri aldaketak eta Lanbideak kudeatzen dituen dirulaguntzak jasotzeko eskubidea lortu eta jarraipena bertatik egitea izan dira.

### Kasu berriak Jatorria




Jatorriari dagokionez, grafikoan adierazten den bezala, Sahara, Maroko eta Argeliatik dator gehiengoa. Orokorrean, Saharar kanpamenduetatik etorritakoak dira baina bakoitzaren nazionalitatea ezberdina da euren egoeraren arabera, beraz, herrialde ezberdinetan banatuta aurkitzen dira. Laz ere egoera honetan aurkitzen ginen eta jatorria zehazterako orduan arazo berdina topatzen genuen. Orain arteko joera Pakistanetik etorritakoak gehiengoa izatea izan da baina, pixkanaka egoera hau aldatuz doa.

### Adina

Adinari dagokionez, 26 eta 35 urte bitarteko pertsonak gehiengoak izan dira eta gutxiengoa aldiz, 18-25 urte bitartean kokatzen da.

### Lan baimena





# enplegua eta garapen ekonomikoa

Esku-hartzean egon direnen artean, gizonei dagokionez, gehienek lan baimena dute eta emakumeei dagokionez denek dute lan baimena. Hala ere, lan baimena gehiengoak izan arren bakarra aurkitzen da lanean.

Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza orokorrean baxua edo ertaina da. Emakumezkoetan batez ere, maila hizkuntza maila baxua da. Ofizialak diren hizkuntzak ez menderatzeak gizarteratze lana egiteko oztopo garrantzitsu bat suposatzen du.

## Burututako ekintzak

2014. urtean egin zen lan-metodologiaren aldaketaren ondorioz, banaka eta taldeko lana eginez gizarteratzeko ibilbideak jorratzen jarraitu da. Honela, ohiko laneratzea eta formakuntza saioez gain, gizarteratzearekin erlazionatutako beste hainbat arlo lantzen dituzten tailerrak burutu dira.

Urte osoan aurrera eraman diren koordinazio eta jarraipen ekintzez gain, 2016. urtean hiru ekintza nagusi antolatu dira.

- 1) Alde batetik Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) onuradunak izateko baldintzak betetzen zituztenei, DBE eskatzeko eman behar diren pausoak azaldu zaizkie.
- 2) Beste alde batetik, KZ Gunearekin ikastaro ezberdinak adostu dira erabiltzaileen formazioa zabaldu edo/eta egokitzeko.
- 3) Azkenik, Emaus fundazioarekin elkarlanean, eskualde mailan etxeko lan eta kudeaketarako ikastaroa antolatu da.

# Familiak

- Adin txikikoak dituztenentzako aholkularitza
- Arrisku edo babesgabetasun egoera arriskutsuan dauden adin txikikoak
- Balorazioak
- Esku hartzeak
- Kale hezitzaileen Zerbitzua
- Esku hartze juridikoak
- Jarraipena
- Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden adin txikikoak.  
Foru Aldundiaren esku hartzea
- Adin txikikoak babesgabezia egoeran. Foru Aldundiaren tutelapean
- Adin txikikoak kargura dituzten familientzako diru laguntzak
- Protokoloak
- Gainbegiratze saioak
- Foru Aldundiko Gizarte Mintegiak




**Espediente kopurua: 122 (% 6,95a)**

**Generoa: Espedienteen % 41,66a emakumezkoak eta % 58,33a gizonezkoa.**

**Gastua: 100.168,66 €, % 4,35a.**


### Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



familiak



## Espedieten banaketa



familiak



## Adin txikikoak dituztenentzako aholkularitza

### Zer da

Edozein arazoaren aurrean adin txikikoak dituzten familiei zuzendutako aholkularitza edota informazio zerbitzua.

2016an **3 kasuri** eman zaie arreta. Gutxiengo kasuak dira, normalean herritarrek beste zerbitzu, bidez, batzuk erabiltzen bait dituzte, hala nola, ikastetxea, Prebentziotik Udalak Etxadi-ren bitartez duen kontsultarako bidea edota kontsulta espezifikagoentzako (banaketa kasuetan), abokatu...

## Arrisku edo Babesgabetasun egoera arriskuan dauden adin txikikoak

### Zer da

Programa honen bidez honako helburuak landu nahi dira:

- Babesgabetasun arrisku egoeran egon daitezkeen adingabeen detekzioa.
- Babesgabetasun arrisku egoeran egon daitezkeen adingabeen egoeraren balorazioa.
- Babesgabetasun arrisku egoeran dauden adingabeko kasuetan esku hartzeak bideratzea (psikologo, famili hezitzaile nahiz kale hezitzaile esku hartzeekin).
- Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden adingabe kasuak Foru Aldundira bideratzea.
- Babesgabetasun arrisku egoeran egon daitezkeen edota arrisku egoera arinean aurkitzen diren adingabeko kasuen prebentzio eta jarraipena.

Adin txikikoen arloan lantzen diren kasuak igotzen doaz. Igoera, beste arrazoi batzuren artean, bereziki ondorengo faktore ezberdinengatik eman da:

- Zorionez, gaia gero eta gehiago ezagutu eta garatu da, Erakundeek (ikastetxe, pediatra, ertzaintza, aisialdi erakunde...) sentsibilizazio eta ezagupen maila altuagoa daukate eta ondorioz kasu gero eta gehiago eta azkarrago detektatzen dira.
- Babesgabekotasun egoerak neurtzeko tresnak aldatzean (Balora tresna sartzean) zerbitzu espezializatu baten eskumena izan zitezkeen kasuen muga parametroak urrunago jarri izan dira. Hau da, Udaletatik Foru Aldundira bideratzeko kasuak gero eta arrisku maila handiagoa izatea behar dutelarik eta ondorioz, Udalak bere gain hartu behar ditu.
- Gaur egungo krisi egoerak kasuak larriagotuko dituela aurreikuspena.
- Datuen jasotzea egokitze prozesuan aurkitzen da.

Aurreikusten da kasu kopuruak igotzeaz gain, hauek beharko duten espezializazio maila handiagoa izango dela.

## Balorazioak

2016 urtean zehar guztira **64** (32 emakume eta 32 gizon) **adin txikiko**ren babesgabetasun arrisku egoeraren balorazio burutu dira.

**2016an adin txikiko babesgabetasun arrisku egoeren 52 balorazio berri egin dira** (22 emakume, 30 gizon) **38 kasu**.


**2015tik zabalik zeuden 12 adingabekoen babesgabetasun arrisku egoeren balorazioak bukatu dira (10 emakume eta 1 gizon), 9 kasurenak.**



familia



# familiak



**7 adingabekoen egoera** arrisku arina ala ertaina baloratu denez Udaleko esku hartzean hasi dira. (4 kasu)

Beste **4 kasutan** babesgabetasun egoera larria dela baloratu denez Foru Aldundira bideratu dira eta Foru Aldundiak kasu guztiak onartu ditu.

**10 kasurekin** balorazioan jarraituko da 2017an.

Gainontzekoekin, babesgabetasun arrisku arina dagoela baloratuta jarraipenera pasa dira eta arriskurik ez dagoela baloratu diren kasuak itxi egin da.

## Esku-hartzeak

### Zer da

Familia arazo edota arazo psikosozialengatik babesgabetasun arrisku egoeran dauden adingabeen egoera gainditzen laguntzea du helburu, laguntza psikosoziala nahiz famili hezkuntzaren bitartez.

2016 urtean guztira Famili hezitzaile bitartez **16 adin txikiko**, – 6 emakume eta 10 gizon- **11 familia familia (11 kasu)** esku hartze izan dira.

Ondorengo taulan 2016an esku hartzean hasi diren kasuak eta aurreko urtetatik interbentzioan jarraitzen duten kasuak berezituta:

NOIZTIK esku hatzea	ADINGABEKOAK GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	KASUAK
2016an, berriak	15	5	10	9
Aurretik	7	4	3	6
Guztira	<b>22</b>	9	13	<b>15</b>

Laguntza psikologiko bitartez **4** adin txikiko, – 3 emakume eta 1 gizon- **4** familia esku hartzean izan dira.

Esku hartzeen eboluzioa:

- 5 adingabekoen egoera larri bezala baloratuta foru aldundira bideratu da. (2 kasu)
- 4 adingabekoen kasutan esku hartzea itxi da egoera hobetu delako. (2 kasu)
- 2015 bukaeran oraindik 7 adingabekorekin esku hartzean.( 6 kasu)

Zerbitzuaren kostua guztira **39.740,19 €**-takoa izan da.





familiak

## Kale hezitzaileen Zerbitzua

### Zer da

Kale hezitzaileen zerbitzuaren bitartez bitartez, kalean bertan esku hartzen dugu, oso esku hartze maila eta mota ezberdinak eginez.

2016an gutxi gora behera **70 adin txikikorekin** (gutxi gora behera 62 gizonezko eta 8 emakumezko). Esku hartze motaren arabera:

- Banakako proiektu Hezitzaileak: 15 adingabekorekin.
- Talde Proiektu Hezitzaileak: 7 talderekin.
- Jarraipenean: 8 adingabekorekin.

Esku hartzean dauden adingabekoengan detektatutako arrisku egoera adierazleak:

- Programatik kanpo lagun talderik ez dute edota berdinetatik baztertuta daude.
- Aisialdian ekintza sozio-kulturaletan parte hartzen ez dute.
- Eskolan ikasturteren bat errepikatu dute.
- Kontsumo ez egokiak dituzte.
- Familiarekin harreman gatazkatsuak edota familiaren babesa ez dituztenak. Kasu batzuek Udaleko edota Foru Aldundiko esku hartzean profesional batekin (Familia Hezitzailea, psikologo).
- Osasunerako arriskutsuak diren ohiturak dituzte.
- Harreman ezegonkorak dituzte.
- Justizia edo salaketa gaiak dituzte, edota izan dituzte.

## Esku-hartze juridikoa

Adingabekoen kasuetan adingabeko **1**-en kasuan prozesu judizialean parte hartu da, epaitegitik eskatuta, informe bat aurkeztuz.

Beste kasu **1**-en testigu bezala deklaratu da, epaileak horrela eskatuta.

## Jarraipenean

Esku hartze espezifikoa (familiarra, psikologikoa, soziala...) behar ez dutela baloratu diren, esku hartzea bukatu duten edota arrisku egoera larria izan gabe familiak esku hartzea ukatzen duten **27 adingabekoen jarraipena egin da.**

### **Babesgabetasun arrisku egoera larrian dauden Adin txikikoak. Foru Aldundiaren esku hatzean.**

Familia zailtasun edota arazo psikosozialengatik babesgabetasun arrisku larri egoeran dauden familien egoera gainditzen laguntzea du helburu.

2016an **4 adingabekoen egoera** berri bideratu da Foru Aldundiara, 2 neska eta 2 mutil. ( 2 kasu).

2016 urtean **22** adin txikikorekin (10 emakume, 12 gizon) 12 kasu/familiekin interbentzioa burutzen ari da.

### **Adin txikikoak Babesgabezia egoeran. Foru Aldundiaren tutelapean.**

Adin txikikoa babesgabetasun egoera batetan aurkitzen denean, babeste aldera, Foru Aldundiak adin txikikoaren tutoretza beregain hartzen du eta aldi baterako edota behin betiko familiarengandik banandu.

2016an **5** adingabekoen babesgabetasun egoera kasu eman dira, 3 neska eta 2 mutil (3 kasu/familia).



familiak

Ondorengo taula, 2016. urtean adin txikikoekin Bergarako Udaletxetik egindako esku-hartze zuzenaren laburpena

GUZTIRA Eguneraketak Deribazioa		Orientazio ekintza
BALORAZIOAK		64
Arriskurik gabe	53	
Arrisku arina / ertaina	7	
Arrisku larria( Aldundira bideratuak)	4	
ESKU HARTZEAK FAMILIAN		22
JARRAIPENEAN		27
LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA		4
KALE HEZITZAILEEN PROGRAMAN		70

**187 adin-txikikorekin esku-hartze zuzena egin da**

familiak



## Adin txikikoak kargura dituzten familientzako dirulaguntzak

### Zer da

Babesgabetasun arrisku egoeran dauden edota egon daitezkeen adingabekoen familiei zuzenduriko diru laguntzak dira. Laguntza hauek adingabekoen marjinazioari aurrea hartzea eta babesgabetasun arrisku egoerei ekonomikoki aurre egitea dute helburu. Batzuetan, adingabekoaren babesgabetasun arrisku egoera detektatuta, familia esku hartzea onartzen ez duten kasuetan familiaren egoera ezagutzeko eta familiarekin harremana izaten jarraitzeko ere erabiltzen dira.

Laguntza hauen bidez, adingabekoaren arlo akademiko (errefortzu akademikoak), aisialdi (eskolako irteerak, udalekuak...) zein oinarritzko beharrak (jantokia, arropa, mediku gastuak,...) ordaintzen dira.

### 2016. urteko laguntzak

KOPURU	ONURADUNAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	KOSTUA
6	6	3	3	1.760,50€

2016 urtean onartu diren diru laguntzen kasu gehiengoan kontzeptua ez dela zerbait puntuala izan, baizik eta hileroko kostua duen kontzeptua izan direla (errefortzu akademiko).

### Protokoloak

2014 eta 2015eko urteari jarraipena emanez, Adingabeko babesgabetasun egoeren aurrean Osasun Zerbitzuekin egindako protokoloaren ("Haur eta nerabeak babesgabetasuneko egoeran daudenean Osasun Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzuen artean jarduteko protokoloa") jarraipen saioak egin dira.

Antzuola eta Elgetako herriekin Pediatrak konpartitzen direnez, egindako jarraipen saioa hiru herriek batera antolatu dira. Bertan, Gizarte Zerbitzuetatik Antzuola, Elgeta eta Bergarako



familia

adingabekoen gaia eramaten duten teknikariak eta Osasun zerbitzuetatik bi Pediatra eta hiru herrietako Erizainak elkartu dira. Gainera 2016 urtean 14 urtetik gorako adingabekoak artatzen dituzten medikuak ere gonbidatu eta izan dira.

### **Gainbegiratze saioak**

Blokeatutako kasuak edota adingabekoen gaiarekin harremandutako gaiak lantzeko urte batzutan Foru Aldundiko EZIAk antolatutako gainbegiratze saioetara joan izan da teknikaria. Gaia lantzeko espazio baten beharra baloratzen den arren, Zarautzeraino joateak eskatzen duen esfortzua eta EZIAk ematen duen orientazioa edozein momentutan telefono edota korreo bidez osatu daitekeela kontutan izanda, eskualde mailako adingabekoen gainbegiratze taldea sortzeko proposamena egin eta martxan jarri zen 2014ko azaroan.

2016an jarraipena eman zaie saio horiei eta 9 saio burutu dira.

### **Foru Aldundiko Gizarte Mintegiak**

Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eta Deustuko Unibertsitateak garatutako Gizarte Mintegietan haurren babesaren inguruan Udalen eta Foru Aldundiaren arteko harremana aztertu zen, horretarako 3 saio eginez.

Saio horietatik lantzen jarraitu beharra ondorioztatu zen eta jarraipena emateko 2017rako saioak antolatu dira.



familiak



# Gizarte lankidetzza


- Elkarreei diru laguntzak
- Gobernuz kanpoko elkarreei laguntzak
- Elikagaien bankuko janari banaketa




**Espediente kopurua: 22 (% 1,27a)**

**Gastua: 79.284,54 €, % 3,78a.**

#### Espedienteek edukitako bilakaera azken urteotan



### Espedienteen banaketa



8





# gizarte lankidetzeta

## Gizarte zerbitzu arloko elkarteei diru laguntzak

### Zer da

Diru-laguntzak emateko deialdia da. Bergarako Udalerrian gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendua dago. Helburua da elkarteak sustatzea eta herritarren arteko elkartasuna, boluntariora eta herritarrak antolatutako ekintzetan parte hartzea bultzatzea.

Guztira **12** taldek aurkeztu zuten eskaria eta 13 proiektu aurkeztu dira (elkarte batek bi proiektu aurkeztu zituen).

**9** taldek jaso dute laguntza

**3** taldek ez dute **2016-07-26an** GAO n argitaratutako baldintza pleguan jasotako betebeharreko baldintzak betetzen.

**9** elkartek jaso dituzte diru laguntzak

**Banaturako diru laguntza: 16.817,11 €**

**Laguntza jaso duten elkarteak honako hauek izan dira:**

ELKARTEA	PROIEKTUA	€ DIRU LAGUNTZA ESKARIAREN ARABERA
Nagusilan	Nagusiei laguntza pertsonala	587,50
ATZEGI	Aisialdia elbarrituei	2.554,28
ADAHIGIBANCO DE ALIMENTOS	Atentzio Defizita eta Hiperaktibitateari buruzko informazioa	956,67
Odol emaeleak	Bazterketa soziala izateko arriskua dutenen artean janari banaketa	704,14
Aransgi	Odol ateraldiak eta sentibilizazio hitzaldiak	2.746,50
Caritas	Zeinu mintzairaren formazioa	2.135,00
San Joxepe	Tailer okupazionala atzerritarrekin	1.250,00t
ITURRIGORRI	Astialdiko ekintzak jubilatuentzat	4.395,52
ACABE	Osasun arloa	1.487,50
SAN JOXEPE	Astialdiko ekintzak jubilatuentzat	2.820,78
ITURRIGORRI	Osasun arloa	1.018,62

Egin diren ekintzak honako hauek izan dira: jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, mahai informatzaileak, orri informatzaileak, boluntario lanak Udalak antolatutako ekintzetan.





# gizarte lankidetzeta

## Gobernuz kanpoko elkarteei laguntzak

### Zer da

Gobernuz Kanpoko Erakundeen hainbat programa aurrera eramateko diru laguntzak dira. Programa hauen helburuak honako hauek izan behar dira:

- Garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzea.
- Goian aipatutako herrialdeetako errealitatearekiko interesa sortzea, Bergaran egingo dituzten ekintzen bidez.

Aurtengo deialdian 6 proiektu aurkeztu dira eta guztiak lankidetzarako izan dira. 6 proiektu hauetatik,

**Guztira 6 proiektu finantziatu dira: 54.699,98 €**

Diru laguntzak honako erakunde eta herrialdetara bideratu dira: BUBISHER (Sahara), MUNDU SOLIDARIO HELBURU (Nicaragua), GIPUZKOAKO "OSCAR ROMERO" SOLIDARITZA BATZORDEA (El Salvador), KOMITE INTERNAZIONALISTAK (Nicaragua), TAU FUNDAZIOA (El Salvador), eta SERSO SAN VIATOR (Burkina Faso)



### Lankidetzaren proiektuak

ELKARTEA	PROIEKTUEN ARLOAK	DIRU LAGUNTZA €-tan
BUBISHER ( Sahara)	Osasun arloa	7.297,92
MUNDO SOLIDARIO HELBURUA (Nicaragua)	Osasun arloa	9.730,56
OSCAR ROMERO ( El Salvador)	Infrastrukturak (ura eta ekosaneamendua)	11.555,05
KOMITE INTERNAZIONALISTAK (Nicaragua)	Hezkuntza	7.870,83
TAU FUNDAZIOA (Bolivia)	Ekonomia arloa (elikadura burujabetza)	10.338,73
SERVO SAN VIATOR	Hezkuntza	7.906,89

### Sentsibilizazio proiektuak

Herrian bertan egiteko sentsibilizazio-arloko ekintzarik ez da aurkeztu beraz, diru-laguntza hauen oinarrietako 5. artikuluan zehazten zen bezala, sentsibilizazio-arloko ekintzetarako aurreikusita zegoen diru kopurua (2.735 euro) garapen-bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak garatu eta hobetzera zuzendutako ekintzetara bideratuko dira.



## Elikagaien Bankuko janari banaketa


### Zer da

Begarako Udaleko, Caritas elkarteko, Elikagaien Bankuko eta herritar boluntario batzuekin lankidetzan hilero janari banaketa egiten da Udalak Martoko kalean utzitako lokalean.

Udalak hilero banaketa egin ahal izateko, garraiorako baliabideak eskura jartzen ditu. Onuradunek Caritas elkartean izena ematen dute eta bertan jasotako orria aurkeztu behar izaten dute janari otarra jaso ahal izateko, hilero azken asteazkenean. 2015ean Bergaran urtean zehar 980 familiak jaso dute elikagaien otarrak. Hileroko banaketa kopurua honako hau izan da.

LAGUNTZA	KOPURUA
Urtarrila	94
Otsaila	80
Martxoa	89
Apirila	86
Maiatza	92
Ekaina	83
Uztaila	78
Abuztua (ez da egoten banaketarik)	0
Iraila	80
Urria	77
Azaroa	84
Abendua	81
<b>DANERA</b>	<b>924</b>

### Laguntza jasotako familia kopuruaren bilakaera





# GIZARTE ZERBITZUAK MEMORIA2016



Bergarako  
Udala